


**Sanjoanak
Olaberria eta
Seguran.
Sanpedroak
Mutiloan**

**Beasaingo
Merkatarien
Elkartea**

**Olaberriako
Bengoetxe
baserriko
mahastiak**



2 0 0 4 k o u d a





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



FREELANDER BERRIA **NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA**

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefona: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefona: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Ion Muñoa, Aitziber Murua, Maite Lasa, Iñaki Ugalde, eta Landarlan.

Azaleko argazkia: Javier Fernandez.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria*



Hitzarmen hau ez da berria. Duela 5 urte ere sinatu baitzuten, Euskadiko Kutxaen bulegoak dituzten udalek. Argazkia, ordukoa da.

Euskararen erabilera areagotzeko asmoz **Euskadi Kutxak eta 5 udalek** **hitzarmena sinatu dute**

Beasain, Idiazabal, Lazkao, Ordizia eta Ormaiztegi udalek, Euskadiko Kutxarekin, euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 28an Donostian. Lau urterako hitzarmena da eta orain arteko lankidetzak indartu eta sakondu egin nahi dute euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko.

Ondoko hiru puntuotan laburbiltzen da hitzarmena: erakunde sinatzaileen arteko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz izango dira; euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte; Euskadiko Kutxak bere aldetik, Beasain, Idiazabal, Lazkao, Ordizia eta Ormaiztegi bere bulegoetan

tan bezeroekin dituen harremanetan euskararen presentzia ugaltzen ahalegin berezia egitera konprometitu da.

Adibide moduan, jarraian dituzue Euskadiko Kutxak hartutako konpromiso batzuk: bezeroari lehen hitza euskaraz egingo zaio; lehen libreta, kontu edo txartela irekitzera doan bezeroari eskaintza euskaraz egin eta azalpenak euskaraz eman go zaizkio, eta txartela euskaraz erabiltzea eskainiko zaio; kanpainen bidez, beren zerbitzuak euskaraz erabiltzeko deia egingo die bezeroei; kutxazainen sarean instalatua duen pantailan azaltzen den sarerako agurra euskaraz izango dira; udalerri hauetako sukurtsaletako kartelak euskarazko bertsioan jarriko dira, bai barrura eta bai kanpoaldera begira...

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:

urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa:

urtean 24 euro

Europaz kanpo:

urtean 36 euro

Europako hauteskundeak emaitzak herriz herri

HERRIA	ZENTSOA	ABST.	EAJ	EA	EAJ/EA	PSE-EE	PP	ARALAR	EB-IU	EH	BALIOGAB.
Altzaga 1999an	120 83	%45,83 %25,30	13	7	22	2 0	0 0	4	6 0	40	32
Arama 1999an	134 148	%41,04 %25	27	11	44	2 2	4 3	1	0 1	60	33
Ataun 1999an	1.338 1.393	%39,69 %18,02	243	117	500	13 10	0 3	28	8 10	600	393
Beasain 1999an	10.152 10.093	%57,86 %31,71	1.428	486	2.791	950 1.263	438 778	91	145 223	1.606	675
Ezkio-Itsaso 1999an	465 461	%53,33 %9,76	59	43	188	0 4	0 8	8	3 1	208	101
Gabiria 1999an	340 368	%44,12 %17,39	54	78	208	1 2	1 2	10	1 0	90	41
Gaintza 1999an	106 112	%56,6 %34,82	29	3	32	0 0	0 2	1	0 0	37	11
Idiazabal 1999an	1.780 1.715	%48,03 %21,34	323	276	826	33 34	35 71	17	10 11	382	226
Itsasondo 1999an	468 528	%54,49 %30,49	69	18	120	9 4	7 9	6	6 2	216	98
Lazkao 1999an	4.120 4.005	%53,45 %29,69	630	212	1.045	320 387	162 264	19	49 76	984	489
Legorreta 1999an	1.150 1.198	%46,87 %28,63	265	44	379	72 84	33 58	10	11 5	296	163
Mutiloa 1999an	134 144	%55,97 %39,58	23	8	41	0 0	0 2	0	2 1	41	25
Olaberria 1999an	797 869	%56,59 %27,16	113	24	179	85 112	23 108	0	10 19	187	63
Ordizia 1999an	7.259 7.620	%53,91 %31,73	903	385	1.768	676 781	403 656	61	136 270	1.572	737
Ormaiztegi 1999an	1.015 969	%48,28 %17,34	235	77	463	35 16	16 22	8	8 5	275	138
Segura 1999an	1.012 1.021	%38,14 %13,03	174	191	513	13 11	9 13	3	7 1	332	220
Zaldibia 1999an	1.217 1.283	%42,97 %26,50	117	41	184	36 56	14 32	90	8 7	631	383
Zegama 1999an	1.102 1.124	%39,38 %18,68	157	297	505	6 8	10 23	11	2 1	356	179
Zerain 1999an	214 205	%32,24 %14,63	64	16	93	1 2	0 0	4	0 1	75	60
Guztira 1999an	32.923 33.339		4.926	2.334	9.901	2.254 2.776	1.155 2.054	372	412 634	7.988	4.067



AMEB
Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ **943 16 25 23** **LAZKAO**



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ **943 88 46 28**

Goierriko Gurutze Gorriak eta Gipuzkoa Emergentziak lankidetza hitzarmena sinatu dute

'Anbulantzia eskola' ren funtzioa ere beteko Beasaingo egoitzak

Gipuzkoa Anbulantziak eta Maiz Anbulantziak, Beasaingo Gurutze Gorriarekin sinatu duten lankidetza hitzarmenaren bidez, Gurutze Gorriak Beasaingo anbulatorioan duen egoitza, enpresa pribatuen esku geratu da. Era honetan, 112 larrialdi zerbitzua Goierri bertatik eskainiko luke. Hitzarmen honek ere badu beste ondorio bat: Gurutze Gorriko boluntarioek, enpresa pribatuetako anbulantzietan ariko baitira profesionalen ondoan, prestakuntza hobetu eta goierritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko. Lankidetza hitzarmen antzindari.

Anbulantzia eskola

Beste funtzio bat ere beteko du hitzarmen honek. Gurutze Gorriak boluntario berriei eskaintzen dizkien ikastaroen barruan, arlo praktikoa landuko baita bertan. Era honetan, lan-poltsa osatuko litzateke, larrialdietako eta prebentziozko garraiorako. 100 bat anbulantzia daude Gipuzkoan eta askotan langile faltan izaten omen dira.



Gipuzkoa eta Maiz anbulantzietako ordezkariak, Jose Mari Baztarrikaren Goierriko Gurutze Gorriko ordezkariaren ondoan.

Sasieta Mankomunitateak lehenengo sei hilabeteen balorazioa egin du Arropa bilketa: astean 3.600 kilo arropa biltzen dira Goierriin

Urtarrilaren bukaeran martxan jarri zuen Sasieta Mankomunitateak erabilitako arropak biltzeko zerbitzua. Edukiontzia bereziak jarri ziren horretarako. Sei hilabete pasatu diren honetan, lehenengo balorazioa egin du Sasietak.

Astean 3.600 kilo arropa bildu dira orain arte. Azken asteetan, nabarmen igo da kopuru hori, astean 6000 kilo. Sasieta-ren esanetan, urtaro aldatetaren eragina izango litzateke bikoizte horren arrazoia. Adibide zehatz bat ematearren, Ordizian, astean 450-500 kilo bildu izan badira, azken astean, 1.140 kilo bildu dira. Dena den, Sasietak, berriz ere kopurua egonkortzea espero du.

Lehenengo datu bilketa egin ondoren, Sasietak uste duenez, urtean, pertsonako erabilitako 3 kilo arropa botako ditu edukiontzietara. *"Datuon arabera, eta igoerako joera ikusirik, esan liteke bilketa berri hau hasierako aurreikuspenak betetzen ari direla"*, dio Enrike Enparantza Sasietako teknikariak.



tetzen ari direla", dio Enrike Enparantza Sasietako teknikariak.

Unanue
70 URTEURRENA
1934 - 2004
ORDIZIA - BEASAIN

70 urte
goierritarrak goxatzen!



11,6 milioi euroko irabaziak izan zituen iaz CAFek

Ekainaren 5ean CAFeko Akziodunen Batzarra egin zen. Bertan emandako datuen arabera, iaz, CAFek, 11,6 milioi euro irabazi zituen, 2002an baino %18 gehiago. Salmentak % 26 handiagoak izan ziren, 495 milioi eurokoak. Produktibitatea eta lan baldintzak hobetzeko 16,7 milioi euro bideratu ziren, eta urteko batz besteko langile kopurua 3.472koa izan zen 2003an, aurreko urtean baino 259 gehiago. Aurtengo datuen aurrerapen bat eginda, apirilaren amaieran CAFek 2.335,7 milioi euroko eskabide zerrenda zuela jakinarazi zuten, inoizko handiena.

CAFeko langileen protesta

CAFek akziodunen ordezkariak batzarrean zeuden bitartean, Beasaingo CAF lantegiko langileek kontzentrazioa egin zuten, "lan hitzarmen justu eta duina" eskatzeko. Urtariletik enpresa zuzendaritzarekin hitzarmena negoziatzeko hasitako elkarriketa blokeatuta dagoela salatu dute ELA, LAB, ESK, CCOO eta UGTeko ordezkariak. Enpresa batzordeak Kontsumo Prezioen Indizea gehi 2,75eko soldata igoera eskatzen du. Horrekin batera, 15 orduko lan murrizketa lanaldi partziala duen langileentzat, 20koa bi txandakoentzat eta 25 ordu hiru txandakoentzat. Behin-behineko langileak finko bihurtzea ere eskatzen dute sindikatuek.

Ordizia eta Beasaingo udaletan lanuzteak

Lan hitzarmenak negoziatu daitezela eskatzeko, lanuzteak egiten ari dira Ordiziako eta Beasaingo udaletako langileak, ELA eta LAB sindikatuek deituta. Astearte, ostegun eta ostiralean burutzen dituzte mobilizazio ezberdinak.



Argazkia: Juantxo Unanua.

Beasainen Eguneko Zentro berria

Ekainaren 15ean inauguratu zen Eguneko Zentro berria Beasainen. 18 laguntzako lekua du, Oria Pasealekuko 16.enean dagoen Zentro berriak. Jose Luis Madrazo Gizarte Politikarako Departamentuako ezinduen eta babesgabeen laguntzako zuzendari nagusia, beasaindarra bera, izan zen inaugurazioan. Madrazoren esanetan, "familiako gainerako kideak lanean edo zeregin profesionaletan ari diren bitartean, adinako pertsonak banakako eta kalitate handiko zaintza izango dute zentroan". Goizeko 10etatik 17:45era egongo da irekita Eguneko Zentroa. Ostalaritza zerbitzu pertsonalizatua eta erabiltzaile bakoitzaren beharrei egokitua, higiene pertsonaleko zerbitzua, eskulanen bidezko terapia, gimnasia, dementziaren bat duten pertsonen zaintza, eguneroko jarduerak egitea... eta abar luze bat eskaintzen dute bertan. Garraio egokitua du, erabiltzaileek beraien etxetatik zentrorera eramateko.

Arkumearen Mahaiaren emaitza baikorrak

Orain dela urte eta erdi sortu zen Ordizian Arkumearen Mahaia, Eusko Labeldun arkumea bultzatzeko helburuarekin. Ekainaren 7an egin zuten Arkumearen Mahaiak lehenengo urtebetearen balorazioa eta hona hemen datu batzuk. Aurreko kanpainarekin alderatuta, aurtun, abendutik maiatzera, %51 arkume gehiago aurkeztu dira Eusko Label ziurtagiria jasotzeko. Guztira, 26.000 arkumek lortu dute. Bukatu berria den kanpainan 105.000 arkume produzitu dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta horietatik %30ek lortu dute Labela. Kontsumoari dagokionean datu zehatzik ematerik ez badago ere, EAEn kontsumitzen den arkumearen %60a bertakoa dela esan daiteke; horietatik %25 labelduna.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

Goizeko 9etatik
gaueko 9etara
URRATS AKADEMIA

LEHEN HEZKUNTZA

DBH

BATXILERGOA

ZIKLOAK

UNIBERTSITATE MAILA


Elosegi, 16-3. esk. LAZKAO Tel.: 670 562 800

Garmendia eta Mendizabal ordiziarak Manifestan

Donostian burutzen ari den Manifesta 5, nazioarteko arte garaikidearen biurtekoan, bi ordiziarren lanak daude ikusgai. Iñaki Garmendiarena eta Asier Mendizabalena. Euskal Herriko ordezkari dira biak, Donostiako beste bikote batekin batera. Pasaiako Ziriza etxean daude ikusgai bi artisten lanak. Hurrengo aleetan izango dugu informazio luzeagoa eta zehatzagoa.

Zumalakarregi museoko hainbat objektu Madrilen

Ekainaren 13ra arte, Madrilgo Hiri Museon izan den 'Guda Karlistak' erakusketan, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak mailegatutako Tomas Zumalakarregi jeneralaren objektu pertsonalak eta hainbat grabatu original izan dira. Zehatz esateko, Tomas Zumalakarregiren katalejua, kanpainako idazmahaia eta necessairea, sablea eta pistola, Gustavo de Maeztuk margotutako Tomas Zumalakarregiren erretratua. Bi grabatu ere utzi ditu: 1837ko 'Frantzes legioa karlisten aurkako borrokan' eta 1840ko 'Britaniar Legioa Irun hartzen'. Arte Ederretako Zuzendaritza Orokorak antolatutako erakusketa izan da.



Itsaso Rodriguez eta Xabier Araña III. Komiki lehiaketako irabazleak

Ekainaren 10ean banatu ziren Ordiziako Barrena Kultur etxean, Ordiziako III. Komiki lehiaketaren sariak.

A mailan (DBH 1-2), Ordiziako Itsaso Rodriguez izan zen irabazlea. Bigarren saria, Zaldibiako Ane Soralezek jaso zuen. 80 euroko bale bana jaso zuten, Bilintx megadendan gastatzeko. Epaimahaiak aipamena merezi zuten beste bi lan ere saritu zituen: Ordiziako Amanda Morales eta Zaldibiako Claudia Cristina Lopes. Hauek 30 euroko bale bana jaso zuten.

B mailan (DBH 3-4), Xabier Araña ordiziarrek jaso zuen sari nagusia (110 euroko balea). Ane Azurmendik eta Esther Eskisabelek osatutako bikoteak eta Xuban Arebalok aipamen berezia jaso zuten (30 euroko balea).

Euskarararen Aholku Batzordeko bi kidek, Oiangueren eta Jakintza ikasketxeetako plastikako irakasle banak eta Asisko Urmeneta komikilari iruindarrak osatu dute epaimahaia. Lanak epaitzeko garaian, originaltasuna, modernotasuna, komiki lenguaia eta erreferentzia, barne unibertsoa eta euskararen zuzentasuna hartu dira kontuan.

Sari banaketa ekitaldia, Asisko Urmeneta komikilariak komigintzari buruz emandako mintzalditxoarekin amaitu zen.

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**



Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxe: **943 88 90 17**

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Goierritarra **etxean jasotzeko laguntzaile txartela**
Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

Ertzaintza hau ez da herriarena

Ekainaren 10a. Europako hauteskundeak gertu ditugu, eta beste behin ere Euskal Herrian demokraziarik ez dagoela agerian gelditu da. Euskal Herrian ez eskubide politiko eta ez eskubide zibilak ez baitira errespetatzen.

Hegoaldean ez legezkoa den eta Iparraldean legezkoa den Herriarren Zerrendaren (HZ) papeletak buzoneatzeagatik Beasaingo herritar bat, ertzainek, identifikatu eta papeletak kendu dizkiote.

Gertatzen ari denaz oharturik, Beasaingo herritarra-rengana hurbiltzen gara bi pertsona, gertatzen denaren zergatia ezagutzeko eta babesa emateko.

Ertzaina batek identifikatzeko eskatzen digu berehala, noski erdara hutsean, beste behin Euskal Herriarrek dugun hizkuntza eskubidea zapalduz.

Guk identifikatzeari ez diogu uko egin, Euskal Herriko Institutio Nazionala den Udalbiltzak tramitaturiko EHNAz identifikatu gara. Espainiar karneta emateko edo bestela ertzain etxera eramango gaituela mehatxatzen gaitu ertzainak bortizki. Guk bere horretan jarraitzen dugu.

Bien bitartean ertzaintza-ren bi patruia gehiago iristen dira. Bertako ertzainek jarra-bortitza adierazten dute, beraien hizkeran gorrotoa eta nazka nabaritzen da, Euskal Herriaren aurkako gorrotoa alegia.

(Ertzain batek daraman pistolari begiratu diot, eta nire harridurarako bertan eramaten duten ikurrina kendurik zeukala ohartu naiz. Zergatik kendu ote du?)

Gertakariekin jarraitzeko, gure hitz trukaketen ondoren EHNA-rekin identifikatzea ez digute onartu eta aurrez botatako mehatxua errealitate bilakatu dute. Auto banatan sartu eta Beasaingo ertzain etxera eramanez.

Eta ertzain etxean zer? Aurrez emaniko izen abizenak errepikatu eta kito, nahikoa. Hori bai, gero beste ertzain bat etorri da identifikatuak izan garela esanez (lan ona) eta gure aurka desobedientzi jarrerarengatik salaketa bat jarri digutela (txapo).

Idatzi honen bidez ertzain-

tzak gurekiko eta orokorrean Euskal Herriarekiko duen aurkako jarrera salatu nahi dugu, eta aldi berean, Euskal herritarrei EHNA egin eta erabil dezaten gonbitea luzatu nahi diegu.

Eneko Bueno Artola (Beasain)



Eskatu ordue: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA



BIOK ZERBITZUAK, S/L

Enpresetako aholkularitza orokorra

Errenta
aitorpenak
egiten ditugu

Astelehenetik ostiralera
8:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00

☎ 943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA www.biokzerbitzuak.com

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxes: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN



MUJIKÁ
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Turismo arduratsua, turismo jasangarria


Udaberriarekin batera egunak luzatzen hasten dira eta horrela etxetik kanpo egoteko aukerak ugartu. Inguruko bazterrez gozatzeko irteerak egiteko garai ezin hobea iristen da, bai mendira eta hondartzara, zein herri eta hirietara. Urteko oporraldiak ere gertu daudenez gero, planak egiten hasten gara, horien artean turismo bidaiak.

Baina noiz sortzen da gaur egun ezagutzen dugun turismoa? Esan genezake turismoaren hasera XIX. mendean izan zela, lehendabizi goi mailako klasekoen pribilegioa zena, trenaren asmakuntzarekin publiko zabalera zabaldu zenean. Gaur egun turismoa industria bat bihurtu da eta ekonomiaren sektore garrantzitsua da zenbait herrialdeetan, sortzen dituen lanpostu eta dibisengatik.

Haseran ingurumenaz kezkatutik zeuden taldeak ez ziren turismoaren inpaktoez arduratu, turismoa industria garbitzat hartu zelako, baina urteetako jarduerak garbi erakutsi dute turismoak ere inpaktoak sortzen dituela bai ingurumenean, zein ekonomian eta gizartearen. Bestetik ingurumenaren kalitatearen galerak, turismoaren eragin negatiboa duela ere frogatu da.

Hona hemen, zeintzu diren turismo mota batzuek sor ditzaketen inpaktoak:

- Biodibertsitatearen galera: landaredi eta faunaren galera, mendiko ekosistemetan, itsaso eta itsasertzeko ekosistemetan...
- Lur kontsumo handia: alojamendu erakuntzetarako zein zerbitzu osagarrieta-



rako, horrek bertakoentzat suposatzen duen lur garestitzearekin.

- Baliabideen gehiegizko kontsumoa: ura eta energia kontsumo askoz handiagoa. Pertsonen mugimenduak errepidez edo hegazkinez egiteak, klima aldaketan eragiten du.
- Hondakinak ugaritzea: hondakin kopurua biderkatu egiten da eta bere kudeaketa zaildu.
- Inflazioaren igoera: turisten etorrerarekin prezioak igotzen hasten dira, bertakoentzat bizitza garestiagoa bihurtzen delarik.
- Etekin ekonomikoaren kanporaketa: Banku Mundialaren arabera, garapen bidean diren herrialdeetan turismo industriak lortutako etekinaren % 55a berriro herrialde garatuera itzultzen da.
- Hiri handietako arazoak gerturatzea: trafikoa, kutsadura, drogamenpekotasuna, prostituzioa, alkoholismoa, delinkuentzia...
- Neokolonialismoa: turismoak sarri askotan bertakoaren ohitura, hizkuntza, kultura e.a. aldarazi ditu, kulturen arteko trukeak suposatu beharrean.
- Ohizko lanbideei uztea: arrantza, nekazaritza, abeltzantza, e.a. alde batera utzi behar izatea lur faltarengatik, uren kutsadurarengatik, e.a.

Inpakto horiek ekiditen dituen turismoa jasangarria litzateke, turisten eta turismo eskualdeen beharrak asetzeaz gain, etorkizuneko aukerak babestu eta gehitzen dituen.

Edurne Huesa

"Turismoak inpaktoak sor ditzake, bai ingurumenenean, zein ekonomian eta gizartearen"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44


LIBURUA

✓ **"Manual del Turismo Sostenible: cómo conseguir un turismo social, económico y ambientalmente responsable"**, Mónica Pérez de las Heras, Ediciones Mundi-Prensa, 2003. Liburu honek, ingurumena, ekonomia eta gizartearekiko arduratsua den turismoa martxan jartzeko ekimenak azaltzen ditu: legeria, Tokiko Agenda 21eko prozesuak, dirulaguntzak, ekotasak, jokaera kodeak eta sariak.

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Ibaialde 2004:** Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, urtero bezala Ibaialde 2004 ingurumen-hezkuntzako proiektua martxan jarri du. Ibaialdek herritarrek ibaien alde sentiberatzea du helburu, baita, ibai-ekosistemak zaintzeko eginkizunean eta ibaien arazoen konponbideak bilatzeko ahaleginean parte hartzera. Informazio gehiago lortzeko: 902 160 138; aztertu@ej-gv.es.

✓ **Txokorik helezinenean ere biodibertsitatea arriskuan:** Panamako oiha-nean kontrol gisa erabiltzen diren guneetan, azkar hazten diren zuhaitzak ugaltzen ari dira, makalago hazten diren zuhaitzen kalteetan. Gune horiek hain helezinak izaki, gizakiaren eraginpean dauden oihaen bilakaera ikertzeko erabiltzen dira. Gizakiaren eragina txoko haietara ere iristen dela ikusi dute. Ikertzaileen ustean, aireko karbono dioxidoa ugartzeak eragin du hazkuntza azkarreko zuhaitzak ugaltzea.



Iraunkortasunaren

12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarritzko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkuntza.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoaren aurrean.

2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea

Zure bizimodua mantentzeko planetaren zein azalera behar duzu?

Biztanleok, kontsumitzen ditugun elikagaiak eta lehengaiak ekoizteko, sorturiko hondakinak asimilatzeke eta etxebizitza, errepide eta abarretarako behar dugun lur azalera totala da Azterna Ekologikoa.

Inguruneak, gizakiaren eragina jasanez, berriztatzen jarraitzeko duen ahalmenari, Karga ahalmena esaten zaio.

Bi hauen arteko ezberdintasuna orduan eta handiagoa izan, gabezia handiagoa da.

Benetan daukaguna baino gehiago kontsumitzen dugu Naturak ez dizkigulako trabak ipintzen.

Itsasoak sor dezakeena baino gehiago arrantzatzen uzten digu, basoak urte batean hazi den baino egur gehiago moztzen uzten digu, atmosferak jaso dezakeena baino gehiago kutsa dezakegu....baina noiz arte?

Egoera hau epe luzera ez da IRAUNKORRA izango, planeta gehiago beharko genituzke horrela bizi ahal izateko.

Gabezia = Azterna ekologikoa - Planetaren karga ahalmena

Aztarna ekologikoa = Planetaren karga ahalmena

Garapen iraunkorra


Bizi zaitez xumetasunez beste batzuk bizi ahal izateko

Gandhi



Bal al dakizu?

Herrialde ezberdinek behar dituzten planetak daramaten bizimodurako



Munduko gizaki guztiak gu bezala biziko balira, 2.5 planeta beharko lirateke guztien beharrak asetzeko. Planeta bakarra daukagunez... orekatua al da gure kontsumo eredua?

Kalkula ezazu zure aztarna ekologikoa



Galdera bakoitzetik bat aukeratu eta gehitu lor-
tzen dituzun puntuak. Honela, zure ohiturak
iraunkorrek diren ala ez ikusiko duzu.

1. Zure herrialdean ekoiztutako elikagaiak kon- sumitzen al dituzu?

- * Bai, ahal dudan guztietan. 2
- * Ez dit axola produktu ontziratuak eta herrialde
urrunetan ekoiztutakoak erostea. 10

2. Ze garraio erabiltzen duzu eskolara edo lane- ra joateko?

- * Beti oinez edo bizikletaz joaten naiz. 3
- * Garraio publikoz joaten naiz. 5
- * Autoz joaten naiz. 70

Oporretara joaten zarenean....

- * Urtean gutxienez hegazkinez bidai luze bat egi-
ten dut. 85
- * Hegazkinez noizbehinka ibiltzen naiz. 20
- * Hegazkinez inoiz ez naiz ibiltzen. 10

3. Zure etxean energia berriztagarriak ekoizte- ko sistemarik ba al dago?

- * Ez, erabiltzen dugun energia sarekoa da. 45
- * Bai, elektrizitatea berriztagarria da. 5

4. Kontsumo baxuko bonbilak erabiltzen ditu- zu?

- * Ez 15
- * Bai 5

5. Tresna elektrikoak beharrik gabe erabiltzen dituzu?

- * Bai, batzutan nahiz eta inor ez egon, telebista
edo argia piztuta uzten ditut. 15
- * Ez, inoiz. 5

6. Hotzarengandik ondo babestuta al daukazu zure etxea?

- * Ez, nahiz eta leihoa itxita egon hotza
sartzen da. 40
- * Bai, kristalak bikoitzak dira eta beti leihoak itxi-
ta mantentzen ditugu. 15

7. Berogailua behar baino gehiago erabiltzen al duzu?

- * Bai, batzutan bero gehiegi egiten du. Etxea be-
ro mantentzea eta ni gutxiago janztea nahiago
dut. 10
- * Ez, ahal badut berogailua aurrezte eta ni gehia-
go janztea nahiago dut. 5

8. Hondakinak berrerabili edo gutxitzeko zer- bait egiten duzu?

- * Ez. 30
- * Bai. 10

9. Bilketa selektiboko zaborrontziak erabiltzen dituzu?

- * Ez. 70
- * Bai, baina batzutan. 65
- * Bai, plastikoa, metala, papera eta beira birzikla-
tzen dut. 55
- * Bai, eta gainera, zati organikoa banatzen dut
konposta egiteko 50

10. Dutzatu edo bainatu egiten al zara?

- * Egunero bainatzen naiz. 15
- * Astean egun bat edo bitan bainatzen naiz. 10
- * Egunero dutxatzen naiz. 5

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTIRA

PUNTUAZIOA

0-125

125-250

250-400

PLANETAK

1

2

3

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

ZUZENKI
A H O L K U L A R I T Z A

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.txekin.net

Beasaingo Merkatarikari Elkartea indarberriturik dator

Herriko denda txikiak indartzeko ekintza ezberdinak egingo ditu

Aurten bete ditu 25 urte Bareak Beasaingo Merkatarikari Elkartek. Gorabehera handiko urteak izan badira ere, arnas berria eman nahian, indartu egin nahi dute Merkatarikari Elkartea. Zuzendaritza Batzorde berria izendatu dute eta asmo berrien berri eman digute lerrootan.

Igor Sanchez da Beasaingo Merkatarikari Elkarteko lehendakari berria. Koordinatzaile bat ere izendatu dute, Nekane Arratibel, merkatariei lana erraztuz eta arinduz, Elkarteari indarra emateko. Izan ere, arazo horixe baita, Elkartea indartsuago edo ahulago egotearen arrazoiak. Inma Moralesek, hasiera-hasieratik Bareak Elkartek egon den merkatarikariak, kontatu digu gora eta behera horien arrazoiak: "Edozer gauza egiteak lan asko eta diru asko eskatzen du. Diruarena arazoa izan daiteke, baina lanarena askoz ere handiagoa. Denak laguntzeko prest daude, baina lan egiteko gutxi eta betikoak". Horixe da hain zuzen ere, Beasaingo Merkatarikari Elkarteko aro berri honen be-



Beasaingo merkataritza egoera onean dagoela azpimarratu dute Beasaingo Merkataritza Elkartek.

rikuntza nagusia. "Bilerak, paperak... lan extra asko izaten da. Nekearen eraginez utzi izan da Elkartea, beti-betikoak aritzen direlako. Hemendik aurrera, boluntario-rik azaldu ezean, zozketa bidez aukeratuko da Zuzendaritza Batzorde berria, urtero", zehaztu digute.

Aro berria

Ilusioz ekin diote Beasaingo Merkatarikari Elkartea birsortzeari edo berrindartzeari. "Elkarte Gastronomiko bezala bizirik egon da Bareak, baina Merkatarikari Elkartea bezala, utzita egon da. Baina zenbait merkatarikari aldetik gogo bat bazegoen. Merkatarikari

"Herriko merkataritza sustatu nahi dugu. Egunetik egunera kompetentzia gehiago daukagunez, herritarrak erosketak denda txikietan egin ditzan sentsibilizatu nahi ditugu"

Bazkideak

Arteka, Ustetsu, Alzuaran, Azurmendi Harategia, Rainbow, Siboney, Oskarbi liburudenda, Gonzalez Enmarcaciones, Biok C.B., Urola Bidaia, Goisystem, AH Diseño, Alpe Sukalde altzariak, Narraspe Sukaldeak, Foto Alzuri, Pergola, Imaz Etxea, Oskarbi Oinetakoak, Cortes, Yañez Bitxidenda, Bider Elektrizitatea, Amets Oheak, Urraki Bidaia, Aloska, Kux-Kux Dendak, Boutique Agnes, Aranburu Oinetakoak, Eguzki Inprimategia, Argi Optika, T.P.T., Mirari, Harria Gresak, Dolarea jatetxea, Gráficas San Martín, Orki, Migdala, Pizza Sprint, Anitz Goxokidenda, Lirain Lurrindegia, Ikena, Arropa 2, Jokin Mujika.

ri batzuk elkartu gara eta berri ere abian jartzea erabaki dugu. Ilusioarekin hasi gara", diote. Aro berri honetan, momentuan, 40-45 bazkide murgildu dira. Ahalik eta merkatarikari gehienekin osatu nahi da Elkartea, "zentzu guztietan, indar gehiagorekin jokatzeke. Merkatarikari edozein negoziaketetan indar

GERTU aholkularitza
txekin
ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK
BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com
Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarrats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



Beasaingo Merkatarri Elkarteko hainbat kide, Beasaingo plazan.

gehiago izango dugu banaka joan beharrean, elkartuta 50 joanda. Eta kontsumitzaileei eta herriari begira, hainbat ekintza ere egin daitezke”, argitu du Inma Moralesek. Momentu honetan, Beasainen, 400 denda, taberna eta zerbitzu daude.

Elkartzearen onurak

Elkarteko Lehendakariak, Igor Sanchezek, Elkartearen helburuak aipatu ditu: “Herriko merkataritza sustatu nahi dugu. Egunez egunera konpetentzia gehiago dauka-

gunez, herritarrek erosketak denda txikietan egin ditzan sentsibilizatu nahi ditugu, azken batean herri bati bizia ematen diona merkataritza baita”.

Merkatariei begira, onurak ekarriko dituelakoan daude Beasaingo Merkatarriak, “taldean joanda gauza gehiago lor daitezke. Adibidez, Elkartea indarrean zegoen azken aldian, banketxeekin hitz egin zen, txartelengatik kentzen zaien komisioa jaisteko”, gogoratu du Moralesek. Eusko Jaurlaritzak ere Merkatarri El-

karteentzat dirulaguntzak ematen dituzte, esate baterako, web orriak egiteko.

Beasainen egoera ona

Herri askotan dendak ixten ari badira ere, Beasainen, dendak ireki eta ireki ari dira. “Nork esango zuen duela urte batzuk!”, diote. Osasuntsu egotearen arrazoitzat, egoera berrietara egokitzen jakitea dela uste du Inma Moralesek. “Urte askotan joera bat egon da: modernizatu egin dira etengabe Beasaingo dendak”.

Aurtengo asmoak

Beasaindarrak eta inguruko herritarrek Beasaingo dendetan kontsumitzera bultzatu nahi ditu Beasaingo Merkatarri Elkartek. 2004. urte honetan, hiru ekintza berezi egingo dituzte kontsumitzaileei zuzenduak.

300 euroko hiru bono

Uztailaren 1ean hasi eta azarora bitartean, 300 euroko hiru erosketa bono zozketatuko dira, Merkatarrien Elkarteko dendetako bezeroen artean.

Saskiak zenbat balio du?

Gabonei begira, saski berezi bat zozketatuko dute. Bazkide bakoitzak emandako artikulu banarekin osatuko da saskia eta erakusleho batean egongo da ikusgai. Saskiaren balioa zenbatekoa den asmatu beharko da. Elkarteko bazkide diren dendetan txarteltxoak banatuko dira eta saskiaren balioa zein den zehaztu beharko da bertan. Gehien inguratzen denarentzat izango da saskia.

Hitzaldiak

Azkenik, amaitzeko, hitzaldiak ere antolatu nahi dituzte.

ainaraetxeberria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4

BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Iñaki Etxeberria Olaberriako Bengoetxe baserrikoa "Oraingoz mahatsa saldu egin beharko dugu, baina helburua txakolina egitea da"

hurre auzotik
Olaberriako igoeran mahastiek kendu die lekua belardiei. Bengoetxe baserriko lurretan Goierriko ohikoa ez diren mahastiak dituzte landuta. Arratsalde eguzkitsu batetan, mahastietan bertan aritu gara Iñaki Etxeberriarekin hizketan: "Oraintxe dago lorean eta lora asko dauka. Urte ona bada dezente mahats izango dugula uste dut".

Nolatan hasi zineten mahatsarekin?

Terrenoak aitaginarrebarenak dira. Behiak kendu behar zirela eta, irtenbide bat behar zenez, mahastiak jartzea erabaki genuen. Duela hiru urte Sanjoanetan jarri genituen lehenengoak. 3000 landare eskatu genituen eta denak ez zi-



"Uste dut langintza honetan politena txakolina egitea izango dela, zailena ere bai agian".

tuztenez, bi txandatan jarri beharra izan genuen. Bigarren txanda hori hurrengo urteko otsailean aldatu genuen.

Lur egokia al duzue mahatsa landatzeko?

Hasterako Agrarian azterketak egin genituen. Simaurra, karea, eta karea eta algak nahastutako produktu bat bota

genien. Harrezkero ez diogu ezer gehiago bota eta ez dut uste behar dutenik. Nitrogenoa izateko bertako belarra eta mahastien adarrak txikitu-ta botatzen dizkiogu.

lax zer moduz eman zuen?

Oso gutxi eman zuen. 2 urte zituzten mahastiek, oraindik oso gazteak ziren eta egin

zuen lehorterekin oraindik sustraiak eta enborrak oso meheak zituzten eta mahats asko bazuten ere, dena lehortu zen. Mahats pasak bezala geratu ziren. Hori bai, eman zituen aleak oso onak eman zituen.

Ondo ematen hasteko 5 urte behar dituzte. Aurten 3 urterekin zerbait ematea espero dugu.

Lan handia ematen al du?

Nik ez nuen uste hainbeste emango zuenik. Ganaduarekin egunero-egunero egin behar da. Hemen lan diferentea da: egunen batean huts egiten baduzu ez dago arazorik, baina, hala ere lan asko egin behar da.

Hasieran hesiak jartzen lan handia dago baina behin eginda pixka baterako pakea izaten da. Udaberrian lan handia izaten dute adarrak irtetzen hasten direnean aldamentara ateratzen dira eta horiek zuzendu beharra izaten



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**


SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.

Lurrindegia

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 **BEASAIN**
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 **ORDIZIA**



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

ALTZAIUZKO ATEAK:

**AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.**



da eta kanpora ateratzen direnak ebaki, belarra ebaki behar zaie, neguan inausi egiten dira...

Lehendik ezagutzen al zenuen mahatsaren mundua?

Ez, orain ari naiz ikasten. Beti iruditu zait interesgarria mahatsaren eta ardoaren mundua. Eta etxe inguruan jartzeko polita iruditzen ziztaidan.

Mahastiak jarri eta zein da asmo nagusia?

Ardoa egitea, txakolina egitea kasu honetan. Oraingoz mahatsa saldu egin beharko

dugu, baina helburua txakolina egitea da. Hori egitera iristeko bodega egin behar da eta inbertsio ikaragarriak eskatzen ditu. Mahastietan bertan ere inbertsio handia egin behar izan dugu, mahatsondoak, posteak, alanbreak... Baina, ondorengoa ere salto handia da. Uste dut langintza honetan politena txakolina egitea izango dela, zailena ere bai agian. Ondoren komertzializazioa eta beste burohauste batzuk izango dira. Bodega jartzeko lekua pentsatuta daukat, baserri hauek lekua izaten baita, baina gainontzeko guztia falta da.

Tresna asko behar dira: prentsak, upelak, enbotelladorak...

Beste aukera bat mahatsa saltzea da, baina, orduan beskeen menpe zaude. Mahatsa eskuartean duzunean ahal den bezala saltzea beste aukerarik ez duzu. Ardoa egiten baduzu, berriz, merkatuan lehiaztzeko aukera duzu.

Ardoa egiten ere ikasi egin beharko duzue.

Bai, hori ere ikasi egin behar. Ardoa egitea erraza izango da, zaila ona egitea izango dela iruditzen zait. Enologoren bat hartu beharko da horretarako.

Lehenengo etxerako pixka bat egin eta probak egin beharko ditugu. Badut horretarako gogoa eta datorren urtean espero dut sagardotegian prentsatu eta upel txiki batean etxean probatarako zer-bait egitea. Ikasten hasteko behintzat.

Beste bodegatara joan eta ikasten ari al zara?

Mahats munduan gehienbat Biolurren bidez sartu gara. Mahatsgintza ekologikoko

ikastaroetan izan gara. Dena genuen ikasteko eta nonbaitek hasi behar. Ondoren Bizkaian, Araban eta Iparraldean, Irulegin, ibili gara zer egiten duten ikusi eta ikasten. Bakoitzak lan egiteko bere modua izaten du eta bati zer-bait eta beste bati beste zer-bait kopiatuz ari gara.

Mahatsgintza ekologikoa egiten al duzue?

Ahal den garbiena egiten saiatzen gara behintzat. Ahal den gutxiena tratatzen dugu. Eguraldi lehorrekin ez dute arazorik. Hezetasunarekin gorrina sartzen zaie eta hori izaten da arazoa, tratamendua eman behar.

Zein mahats mota duzue?

Hondarrabi Zuria eta Hondarrabi Txikia. Getari aldean Hondarribi Zuria erabiltzen da gehien. Hondarribi Txikia Bizkaian eta Araban ere erabiltzen da.

Olaberriari beste itxura bat eman diezue mahastiekin.

Diferentea behintzat. Gana-dua kenduz gero baserritik ez dut uste alternatiba handirik dagoenik.

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Lurre lantegialdea, 10
☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

ARRIETA

*Jai zoriotsuak
opa dizkizuegu!*

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



Jepsa S.L.

**LANTEGI
HORNIGAIK**

☎ 943 88 09 60
☎ 943 88 17 43
Faxa: 943 88 69 05
201 Industrialdea, 6. pab.
OLABERRIA
97 posta kutxa
BEASAIN

**ILARGI
AUTOELEKTRIZTATEA**



Bosch eta Veeder-root
takografoen zerbitzu
ofiziala



Jai zoriotsuak denoi!

☎ 943 88 32 12

Lurre auzoa **OLABERRIA**

San Joan jaiak Olaberrian

Ekainak 19, larunbata:

8:00etan: Udal balkoian ikurrinen zintzilikatzea.

9:00etan: Kanpai jotzea eta suziriaren jaurtiketa.

10:00etan: Jubenil mailako XV. Gipuzkoako Itzuliaren irteera. Antolatzailea: Arkupe Elkarte.

11:45ean: Txirrindulari itzuliaren amaiera.

13:30ean: Jaietako pregoia.

15:30ean: Probintzi Mailako Plater Tiraketa (Izenemateak 16:00an itxiko dira). Antolatzailea: Olaberriko Tiro Elkarte.

17:30ean: Goiti-Behera Lehiaketa. Ibilbidea Bikario-etxeko errebuelatik Karobi industriadeko bidearaino izango da.

18:00etan: Herri mailako



Arg.: Javier Fernandez

XIX. Pala txapelketa. Antolatzailea: Arkupe elkarte.

19:30ean: Burruntzian erretako Euskal LabelekoTxekor jana.

23:00etan: Su Artifizialak, Zaragozana Pirotekniaeren eskutik.

23:30etan: Musika emanal-

dia: Brigada Criminal, Dogma de Fe eta Kudai taldeekin.

Ekainak 20, igandea: umeen eguna:

10:00etan: VI. Gazte pelota txapelketa.

10:00etan: Gipuzkoako Bola Txapelketa. Izenematea goi-

zeko 11,30etan itxiko da. Antolatzailea: Arkupe elkarte.

11:00etan: Gipuzkoako plater tiraketa. Antolatzailea: Olaberriko Tiro Elkarte.

11:00etan: Paleta larruzko sub20 pelota txapelketa.

13:30ean: Bisitaldia herri eskolako eraikuntza berriari.

13:45ean: Buruhandien irteera.

14:00etan: Haurrentzako bazkaria, udal pilotalekuan.

14:30ean: Jolas Parkea: puzgarri, amerikar pista, "pulso estelar"...

18:00etan: Haur eta gazte-txoentzako ikuskizuna Zirko Tipiarekin.

19:00etan: Buruhandien irteera.

19:30ean: Sagardo eta talo dastaketa.



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Gosariak

Pintxoak

Eguneroko menua

Ardo aukeratuak

Industrialdea, 118

943 88 13 09

OLABERRIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA



AUTO-ZERBITZU
GELTOKIA

24 ORDUKO ZERBITZUA

943 88 01 61 Iurre auzoa
OLABERRIA

MARTINEZ
bulkanizatuak



MICHELIN ZERBITZUA

Tel.: 943 88 05 66

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Karobi ind., z/g OLABERRIA
943 88 52 50 - Faxes: 943 88 64 31



Arg.: Javier Fernandez

rreran eta Zezilionean.

22:00etan: San Joan sua, dantzari eta txalapartarekin.

Ondoren: Erramun Martikorenaren kantaldia.

Ekainak 24, asteartea: San Joan eguna:

9:00etan: Goiz eresia eta kanpai jotzea.

11:00etan: Meza. Amaieran, herriko Zeba abesbatzaren emanaldia.

12:00etan: Udalak eskainitako Hamaiketakoa.

13:00etan: Xabier Zeberio eta Mañukorta bertsolarien saioa.

17:00etan: 'Joko Zirriborroa' jolasa 'Gixot de 8' talde kataluniarrarekin.

19:00etan: Motozerren lan erakusketa Ikusgarri taldearekin. Aldi berean, zuhatza



Arg.: Javier Fernandez

21:30ean: Gazte afaria. Informazioa eta izenematea udaletxean eta ludotekan.

23:00etan: Musika jaialdia Black Jiko eta Jauko Barik taldeekin.

Ekainak 23, asteazkena:

17:00etan: Kometa Ludoteka arratsaldeko 7,30ak arte. Lekua: Bikario etxea.

18:00etan: Kanpai jotzea.

19:30ean: Ohiko Loreen be-deinkapena udaletxeko arkupeetan.

20:00etan: San Joan Arbola-ren igotzea, aurrekulari eta txistulariekin.

20:30ean: Euskal arkume txuletatxoaren parrilakada. Informazioa eta izenemateak udaletxean, igerilekuko ha-

egingo da.

20:00etan: Gazteen arteko futbolin txapelketa.

20:00etan: Txokolate jana eta jaien amaiera.



Zubi termiko hausturak
leihoak
Bulego eta bainuetako
manparak
Ateak, erakusleihoak eta
balkoiak

GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162
Iñauti Ind. 14
OLABERRIA

INYELEC

Auto elektrizitatea

Telefónica
MoviStar

lurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 805064

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA



**INDUSTRIAS LANDU
KOOP. E.**

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

☎ 943 88 21 52 - 943 88 61 94 95 posta kutxa BEASAN
Faxa: 943 88 99 10 6. Industrialdea, lurre auzoa OLABERRIA
☎ 943 80 21 80 Guardi industrialdea, 25 IDIAZABAL



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

Etxe-Zuri baserria

☎ 943 882 049

OLABERRIA

- ✓ Eguneroko menua 7 euro
- ✓ Sagardoa txotxetik urte guztian
- ✓ Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
- ✓ Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

OPEL 

GIAUTO



San Joan zoriontsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun

☎ 943 88 51 50
OLABERRIA

Olaberriko eskolak egoitza berria du, herri kaskoan

Bizia eman nahi zaio herri guneari

Datorren irailetik aurrera, Olaberriko haurrek eskola berria izango dute. Herri kaskoan, pilotalekuaren ondoko lokala, eskolaren beharretara egokitu dute. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariaren onespena jaso zuen ekainaren 4an.

Olaberriko eskolek kokaleku bat baino gehiago izan dute historian zehar eta oraingoa ere, bat gehiago da. Azken urteetan Ihurre auzoko eskoletan aritu badira ere, 2004-05 ikasturtean, herri



Argazkian, Olaberriko udaletxeko alkatea eta zinegotziak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariari eskola erakusten.

kaskoan bilduko dira herriko haurrak.

Horretarako, pilotalekuaren ondoan zegoen lokala

egokitu behar izan da. Bi komun, hiru ikasgela, sukaldea eta zuzendariaren gela ditu. Guztiak ere, kolore biziz txukundua.

Jolaserako lekuak ere bertatik bertara izango dituzte. Eskolatik bertatik, pilotaleku estalira joateko atea izango baitute. Parkea ere gertu-gertuan dute. Beraz, pozik izango dira datorren ikasturtean 12-13 ikasleak. Izan ere, eskolako zuzendariak adierazi duenez, aurtengo ikasturtean, Gabon inguru horretan, 15 egunean ikasgelatik atera gabeko gelditu baitziren, euriaren erruz, jolaserako aterpelekurik ez zutenez.

Eskola herri kaskoan egitearekin, haurren artean herri kaskora joateko joera sortu nahi dute, eta haurren jolas eta kantuekin, herriari bizia eman.

Azken urteetan herri kaskoan eskolarik izan ez bada ere, betitik ezagutu dira eskolak bertan. Alde batetik, Zezilio-enea etxearen ondoan, mutilen eskola zegoen. Vivó zena alkate zela bota zen. Mikaelaneko tabernaren jantokian berriz, nesken eskola egon zen. Herriko haur guztiak bertan biltzen ziren. Urrutien bizi zirenak goizean euren bazkariarekin etortzen ziren eta Domini-kaenean gordetzen zituzten, gero kanpoan edo ahal zuten tokian jateko.

'Oixpadun' eskola

Ihurre auzoa eraikitzen ari zirela, Olaberriko eskolak erabat beteta zeuden eta Ignacio Alustiza bikarioak, herriko beste jende batzuen laguntzaz, Ostolaza etxean eskola bat irekitzea erabaki zuen. 'Oixpadun' eskola bezala ezagutua, 1957an ireki zen.

JMA eskola pribatua

1960an inauguratu zen Ihurre auzoan JMA eskola pribatua.

Ikastola

1968an, bosgarren blokean, Ikastola ireki zen. Vivó zenak inauguratu zuen. Garai hartarako berrikuntza ekarri zuen Ikastolak, 2, 3 eta 4 urteko haurrak ere hartzen baitzituen. Eskola publikoarekin izandako tirabirengatik, 1970ean itxi zuten.

Eskolaetxeak

Bengoetxe-haundiko Juanito zana alkate zela eraiki ziren herri



1969an Ihurreko eskolak inauguratu zirenenekoa.

kaskoko Eskolaetxeak. Nesken eta mutilen gelak bereizten ziren. 'Oixpaduneko' eta Ihurreko eskolak ireki zirenean Kaskoko eskoletako matrikula jaitsi egin zen eta 1970ean itxi zuten. Hezkuntza Sailak, bertako ikasleak, Lazkaon eraiki berria zuten eskolara pasa ziren. Arrieta parean autobusa hartzen zuten ikasleak.

Ihurreko eskola mistoa

1963an sortu zen eskola publikoa. Garairik onenean 12 irakasle izan zituen. 80. hamarkadan gainbehera hasi zen. Gaur egun 18 ikasle ditu.



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

ATAUN

**Etxebizitza
bifamiliarra:**

- 400 m²ko lorategia
- Bista pribilegiatuak
- Goi mailako materialak



943 16 10 32

65€

mugitzea gustatzen zaidalako

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Euskal Herriko dantza txapelketa, ekainaren 20an, Seguran *Saio bakarrera jokatu da*

San Joan jaiei atariko, Euskal Herriko dantza txapelketa jokatu da Seguran. 14 bikotek hartuko dute parte 28. edizio honetan. Euskal Dantzarien Biltzarrak, saio bakarrera jokatea erabaki du: ekainaren 20an, arratsaldeko 6etan, Baratze pilotalekuan.

Txirindularitzan Tourrak duen maila eta fama omen du dantzarien artean Segurako dantza txapelketak. 28. edizioa izango du aurten eta berrikuntza batekin etorri ere: dantzarien parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtera igo dute. Ondorioz, 14 bikotek parte hartuko dutenez txapelketan, saio bakarrera jokatu da aurtengo txapelketa. Hau da, ekainaren 20an, igandean, arratsaldeko 6etan. Aldaketa horren arrazoitzat zera adierazi du Joxe Juan Ugalde, Euskal Dantzarien Biltzarreko ordezkariak: dantzari gazteak badatozela, baina Segurako txapelketak duen mailari eusteko, 16 urtera arteko muga jarri dutela. "Dantzariak badatoz, oso onak, baina denbora behar dute. 1985, 86 eta 87 urteetan ere 14 bikotek parte hartu zuten. Azken urte-



Ekainaren 14an Donostiako Miramonen eman zuten prentsaurrean, Mikel Areizaga Segurako alkatea, Joxe Mari Otermin EITBko ordezkaria eta Joxe Juan Ugalde, Euskal Dantzarien Biltzarreko ordezkaria.

etan berri, 20 eta 30 bikoteren artean ibili da. Ziklikoa izaten da".

14 bikotereren artean, goieritarren partaidetza ere izango da. Joseba Apaolaza aramarrak eta Irati Imaz lazkaotarrak osatutako bikotea, eta Xabier Azurmendi zegamarrak. Azken honek, Janire Urbietak bergararrarekin osatuko du bikotea.

Fandango eta arin-arin doinuekin dantza egin behar dute dantzariak. Jantziak ere sarituko dira. Epaimahaiak epaia erabakitzen duen bitartean, Edu Muruamendi-razen 'Aukeran' taldeak, ikuskizun berria aurkeztuko

du. Dantza txapelketa Euskal Telebistako kamarak grabatu dute eta igandean bertan, gaueko 10ak aldean, eskainiko dute, ETB-lean. Joxe Mari Otermin EITBeko ordezkariak, "Segurak, gure programari dotorezia ematen" diola azpimarratu zuen.

Mikel Areizaga, Segurako alkatea, txapelketaren goi mailako kalitatearen atzean bi izen aipatu azpimarratu nahi izan zituen prentsaurrean, eta aldi berean, eskerrak eman: Nestor Basterretxea eta Karmenxuri Etcheberria. Azken honek, alkate zela, bideratu eta lortu baitzuen EITBerekin harremana.



Sega Eguna ekainaren 27an Seguran

San Joan jaietako azken egunean, sega izango da protagonista. Iazko irailean Almitza elkarteak antolatutako Nazioarteko sega txapelketaren ondotik sortutako harremanari eutsi nahirik, Sega Eguna antolatu dute Seguran.

Bi txapelketa jokatu dira, Madurako zelaietan. Goizean, 10,30etan hasita, sega txikian, Euskal Herriko txapelketa, nazioarteko eran. Eta arratsaldean, 6etan, sega librean. Hau ere Euskal Herriko txapelketa izango da nazioarteko eran jokatu da. Hau da, nork, azkarren eta txukunen ebaki.



SUTAN

TXIMINIAK
EGURREZKO BARBAKOAK
ESTALDURAK

(Harlandu simulazioa poliuretanoan)

Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETxu

665 737 302



Segurako San Joan jaiak

Ekainak 18, ostirala:

23:00etan: Dantzaldia Gaudela taldearekin (Tabernari eta txoznek antolatua).

Ekainak 19, larunbata:

23:00etan: Dantzaldia Gaudela taldearekin (Tabernari eta txoznek antolatua).

Ekainak 20, igandea:

18:00etan: XXVIII. Euskal Herriko Dantza Txapelketako finala.

Ekainak 21, astelehena:

16:00etatik 18:15era: Gazte mailako Gipuzkoako Txirringulari Itzulia.

Ekainak 23, asteazkena: San Joan Bezpera

20:00etan: Zopa Pertzaren jaitsiera Segurako alboradaren doinuaz, pregoia eta bokautxoak plazan, Elorri Kultur Elkarteak antolatua.

20:30ean: San Joan arbola jartzea.


23:00etan: San Joan Sua herriko dantzarekin eta txistulariekin.

23:30ean: Dantzaldia Zirika taldearekin.

Ekainak 24, osteguna: San Joan eguna:

09:45ean: Segurako Alborada Kriseilu Txistulari taldearekin.

10:15ean: Alkate Doinuaz



8 urte geroagoa misterioa argituz

1996ko San Joanak. Mozorrotuen gaua. Lau erle ezezagun. Ahoko zuloa ez beste dena tapaturik. Hitzik ez. Mugimendu gutxi. Arnasa ere juxtu eta ihes berehala. Kanpotarrak? Zegamako goialdekoak? Oñati aldekoak? Aztiriarrak? Gau osoko kezka. Urteetako buruhausteak. Zortzi urteko ikerketa ixil, luze, sakon eta gogorren ondoren heldu dira emaitzak. Gutun anonimo batetan bi argazki ailegatu zaizkigu. Batek baino gehiagok lasai lo egingo du!

Elizara bidea.

11:00etan: Meza Nagusia Parrokian.

11:30etik 15:00etara: Oria Txaranga herri giroa alaitzen.

12:00etatik 14:00etara: Haurrentzako parkea: karts,

Altxorraren irla... Pilotaleku ondoan.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariek Udaletxeko balkoitik Agurra.

12:15ean: Herriko haurren eta helduen abesbatzaren

emanaldia Arabarren plazan.

12:30ean: Hamaiketako herriarrentzat Arabarren plazan.

13:00ean: Herri kirolak herriko plazan. Aizkolariak: Arrospide eta Azurmendi. Harrijasotzaileak: Goenatxo eta Izeta. Trontzalariak: Segura eta Legorreta.

Bertan: Atari eta balkoi ederrenei sari banaketa eta herriko kirolariei sari banaketa.

16:00etan: Herriko Txistulariak etxez etxe alboradak joaz.

17:00etatik 20:00etara: Haurrentzako parkea: karts, altxorraren irla... Pilotaleku ondoan.

18:30ean: Profesionalen pilota partiduak. Alustiza-Imaz / Otaegi-Errandonea I eta Badiola III-Elola / Etxaniz I-Galarza IV.

19:30ean: Erraldoi eta Buiruandiak.

20:30ean: Mozorrotuen gauari hasera herriko plazan.

20:00etatik 21:30era: Dantzaldia Disko Festarekin.

23:30ean: Dantzaldia Disko Festarekin.

Ekainak 25, ostirala: San Joan bigarrena: Haurren eta ezkonduen eguna:

Egun osoz: Kirkil txaranga kaleak alaitzen.

11:00etan: Goiz eresia Kriseilu txistulari taldearekin.



F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

IMAZ Jatetxea

Festa zoriontsuak igaro!

◆ Eguneroko bazkariak

◆ Karta

Kale Nagusia, 27 ☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77 **SEGURA**

11:00etan: Marrazki jaia plazan.

12:00etan: Toka, igela eta bote jokoak Atsedan Elkartean.

12:00etan: Toka txapelketa 8tik 14 urtera bitarteko haurrentzat.

13:00etan: Toka txapelketa herrikoia plazan.

14:00etan: Haurrentzat bazkari herrikoia plazan.

18:00etan: Haurren danborrada, Haitz Lehor guraso elkarteak antolatua.

18:30ean: Afizionatuean pilota partiduak: Iñigo Abad - Igor Baez / Ander Antxia - Anartz Ajuria eta Ander Dominguez - Iñigo Altuna / Garikoitz Erroizenea - Jabi Oteiza.

19:30ean: Erraldoi eta buruhandiak.

23:00etan: Kalejira Mac Jera's Band taldearekin.

Ondoren: Kontzertua herriko plazan.

Ekainak 26, larunbata: Koadrilen eguna:

09:00etan: Arrantza txapelketa. Izen ematea plazan.

10:00etan: Plater hausкета



Mendotze aldean, Txoritegi elkarteak antolatua.

10:00etan: Gipuzkoako toka eta bola txapelketa.

12:00etan: Koadrilen arteko IV. Futbito txapelketaren finala.

12:00etatik 14:30era: Iraunkorrek txaranga kaleak alaitzen.

15:00etan: Koadrilen arteko bazkaria plazan. Txartelak salgai daude.

16:30ean: XLVII. San Joan txirrindulari proba.

17:00etan: Toka eta bola txapelketa probintziala.

17:30etik 20:30era: Iraun-

korrek txaranga kaleak alaitzen.

17:30ean: Artzainen jolas eta jokoen jaia plazan.

Ondoren: Erraldoi eta buruhandiak.

23:00etan: Dantzaldia Iraile-rako 6 taldearekin.

Ekainak 27, igandea: poteo elegante eguna:

10:30ean: Sega txikian Euskal Herriko Sega Txapelketa Nazioarteko eran, Madurako zelaietan.

11:30ean: Oria Txanga kaleak alaitzen.

12:00etan: Herriko dantza

taldea eta Tobera musika eskolaren eskutik emanaldia. Donostiako Santa Zezilia koruaren emanaldia.

13:00etan: Txakolin dastaketa plazan.

18:00etan: Poxpolo eta Mokolo pailazoak plazan.

19:30ean: Erraldoi eta buruhandiak.

18:00etan: Sega librean Euskal Herriko Sega Txapelketa Nazioarteko eran, Madurako zelaietan.

Ondoren: Sari banaketa herriko plazan.

Iluntzean hasita: Poteo elegantea.

20:30etik 22:00etara: Egan taldearekin dantzaldia.

23:00etan: Txanbolinpetik Zopa Pertzarekin kalejira, trikitilari, poteolari elegante eta herritarrak lagun direla.

23:30etik 02:00etara: Egan taldearekin dantzaldia.

00:00etan: Zopa pertzaren igoera eta agurra

Oharra:

Ardixarra Etxean Laiotz Herri Eskolako ikasleek egindako eskulanak izango dira ikusgai.

San Joan Jaiak SEGURAn

Udalaren izenean

San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu



SEURAKO UDALA

28.

EUSKAL
HERRIKO
dantza

txapelketa



Mutiloako San Pedro jaiak

Ekainak 29, asteartea: San Pedro eguna:

19:00etan: Meza nagusia.

19:30ean: Txerriaren jaitiera eta kanpai jotzea, festei hasiera emateko.

Ondoren: Patata tortila lehiaketa. Tortila gerturatzaren diren artean banatuko da. Izena emateko zerrenda Ostatun egongo da. Patata tortilaren jatearekin batera ardo banaketa izango da.

20:00etan: Toka lehiaketa herritarrentzat. Bi sari izango dira, bata gizonezkoarentzat eta bestea emakumezkoentzat.

Iluntzean: Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariak.



Uztailak 2, ostirala:

20:00etan: Sagardo dastaketa, txorizo jana eta taloak. 26 sagardotegi desberdinetako sagardoa probatzeko aukera izango da.

Ondoren: Oilasko errea.

00:00etan: Joselu Anaiak taldeak alaituko du giroa.

Goizaldera: Txokolate jana.

Uztailak 3, larunbata:

Eguerdian: Poteo herrikoia.

14:00etan: Gazte bazkaria.

17:00etan: Ume jolasak, puzgarriak eta merienda.

18:00etan: Bola lehiaketa.

18:30ean: Sega apostua herriko gazteen artean. Bekotxe-Sefe, Zabalo-Iparraren aurka.

Afariaren aurretik: Ardo

banaketa.

20:00etan: Meza izango da.

21:00etan: Herri afaria. Txartelak herriko ostatuan hartu behar dira aurretik.

23:30etan: Epelde eta Larrañaga trikitilariak alaitutako erromeria 1:15ak aldera arte.

Ondoren: Eraso eta Kaotiko taldeen eskutik kontzertua izango da.

Uztailak 4, igandea:

Goiz eresia Segurako txistulariekin.

12:00etan: Meza izango da.

Eguerdian: Gabiriko Goruntz taldearen dantza saioa.

Hamaiketako izango da nahi duten guztientzat

Bazkal aurrekoa Ostolaza eta Andonegi trikitilariak alaituko dute.

Bitartean: Toka lehiaketa orokorra.

17:30ean: Pilota partidak.

18:00etan: Bola lehiaketa.

Ondoren: Herri kirol erakustaldia.

Festei amaiera emateko: Andonegi eta Ostolazaren eskutik erromeria.

Oharrak

● Gazte bazkariko eta zapa-tuko afarirako txartelak hartzeko deitu 943801166 telefonora.

● Tonbola izango da.

● Herriko talde batek egindako eskulanean erakusketa ikusgai izango da udaletxe gaineko aretoan.



MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



PATXI ERRETEGIA

Jai zoriontsuak
mutiloak guztioi!

JANARI
TRADIZIONALA

HARAGI ETA
ARRAINA
TXINGARRETAN
ERRETA

Tel.: 943 801 901
LIERNIA

San Pedro jaien atarian

Mutiloko herriko jaien atarian gaude eta urtero bezala herritarrentzat nahiz kanpotik datozenentzat egitarau bete-betean prestatu da. Aurten ekainaren 29an, San Pedro egun berean hasiko dira. Apaiz etxeko ganbaratik, udaletxeko balkoira txerri gorria jaitsiko da. Txerria jaistearekin batera kanpai bueltakoak eta altxafuego ugari botako dira.

Beste urte batzuetan ez bezala, San Pedro egunean beste hainbat ekitaldi ere prestatu dira, aipagarriena agian patata tortilla lehiaketa, aurten egun horretan egingo baita. Tortillak egin ondoren hurbiltzen diren artean partituko dira. Trikitixa doinurik ez da faltako eguna egoki bukatzeko.

San Pedro eguneko ekitaldien ondoren, hurrengo asteburua izango da asteburu fuertea. Uztailaren 2an urte-



tik urtera indar handiagoa hartzen ari den Sagardo das-taketa egingo da. Frontoian izango da arratsaldeko 8etatik aurrera eta bertan 26 sagardotegi desberdinetako sagardoa probatzeko aukera izango da. Nahiko sagardo edan ondoren oilasko errea izango da nahi dutenentzat. Sagardo partiketaekin batera, Segurako talogileek taloak ere egingo dute.

Ostirala amaitzeko musika emanaldia goizaldera arte Joselu Anaiak Taldearekin.

Bigarren eguna, uztailaren 3a, eguerdi aldera hasiko da poteo herrikoiarekin eta egun horretan herriko gazteen baz-

karia izango da.

Arratsalde partean ume jolasak, puzgarriak hasteko.

Arratsaldeko 6etan izango da aurten ere, V. Herritarren arteko Sega txapelketa, herriko lau gazteren artean. Bikote bat Xefe eta Bekotxek osatutakoa da eta bestea Zabalo eta Iparrek. Urtetik urtera jende gehiago hurbiltzen da ekitaldi honetara, ikusmin handia sortzen du herritarren eta kanpotarren artean.

Iluntze partean afaria egingo da herriko plazan eta eguna amaitzeko musikak alaituko ditu bazterrak. Ez da ez

nolanahiko ekitaldia izango. Afariaren ondoren Epelde eta Larrañaga trikitilariak alaituko dute. Trikitilariak ordu bata erdiak aldera izango dira eta ondoren Eraso eta Kaotiko taldeen eskutik izango da kontzertua.

Igandea aurtengo jaietako azken eguna izango da eta hau ere oso bete izango da. Goiz partean txistulariak eta dantzariak alaituko dute herria eta dantza saioaren ondoren hamaiketakoa. Arratsaldean berriz, herri kirolek eta pilota partiden momentua izango da.

Lehenengo bi pilota partida jokatu dira eta ondoren Zurgai taldearen eskutik aizkolari, harrijasotzaileek eskainiko dute ikuskizuna.

Festa guztietan zehar, udaletxe gaineko aretoan, herriko talde batek egindako eskularen erakusketa ikusgai izango da.

Esan beharrik ere ez dago goierritar guztiak gonbidatuta zaudetela herria ezagutu eta gure herriko festaz gozatzea.

Ostatu jaietxea

Jai zoriontsuak guztioi!

Tel.: 943 80 11 66

MUTILOA



KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

943 88 51 68

ORMAIZTEGI



Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIAK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako Jaiak gainean dira. Herritarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta baita bertara hurbiltzen zaretenoi ere. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!



'Haragia ere, bizi-poz' kanpaina

Ordiziako harategi eta urdaitegietan

Kalitatezko haragia euskaraz saltzea eta erostea helburu

Ordiziako Udalak urrats berria egin du 'Euskara Merkataritzara' egitasmoaren barruan. Siadeco ikerketa etxearekin elkarlanean, 'Haragia ere, bizi-poz' izeneko kanpaina prestatu dute Ordiziako harategi eta urdaitegietarako. Gipuzkoa mailan, lehenengo herria da Ordizia, kanpaina hau martxan jartzen.

"Gure establezimenduetan kalitate oneko haragia euskaraz erosi eta jaki goxoak euskaraz dastatzeko bidea erraztu nahi dizugu". Horixe da 'Haragia ere, bizi-poz' kanpainaren helburua. Gauzak honela, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak, herriko harategi eta urdaitegietan haragia euskaraz eta salerosi dadin bidea erraztu nahi izan du. Material berezia prestatu du horretarako Siadeco Ikerketa Etxeak: panelak eta liburuxka.

Panela eta liburuxka

Paneletan, behiaren nahiz txerriaren zatiak azaltzen dira banan-banan, euskaraz nahiz



Ekainaren 8an, Udaletxean egindako bileran jaso zituzten harakinek, harategietan jartzeko panelak eta kontsumitzaileei oparitzeko liburuxkak. Pello Otegi Ordiziako Udaleko Euskara zinegotziak eta Siadeco etxeko Juanjo Allurrek egin zuten kanpainaren aurkezpena.

gatzelerazko izenekin. Kolorre biziko panel hauek, harategian jarriko dituzte harakinak.

Liburuxka, berriz, bezero eta erosleentzako prestatu da. Elikadura osasuntsuaren aldeko aldarrikapena egiten da bertan. "Haragiaren kontsumoa bultzatu nahi da, euskaraz", adierazi zuen Siadeco-

ko ordezkariak, Juanjo Allurrek aurkezpenean.

Atal ezberdinak biltzen dituzte liburuxkak: euskara-gaztelera hiztegitxoak, haragia erostekoak, haragia gisatzeko denborak, kuzinatze teknikak, haragiaren osaketa nutritiboaren taula, haragia mi-

krouhin labean prestatzeko arauak eta haragia modu egokian kontserbatzeko arauak.

Harategien zerrenda

Jarraian duzue, liburuxka banatuko duten eta panela jarriko duten harategien zerrenda: Azurmendi harategia, Lasa harategia, Mujika harategia, Iosu harategia, Ramon Zeberio harategia, Txanketa harategia, J Mujika harategia, Ezeiza harategia, Manuel Barandiaran harategia, Siglo XX harategia, Jose harategia, Khaf harategia, Insausti harategia, Goitine, Eroski eta Ifa.

"Gure establezimenduetan kalitate oneko haragia euskaraz erosi eta jaki goxoak euskaraz dastatzeko bidea erraztu nahi dizugu"



AUSO EGI
Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✕ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✕ Berogailuak
- ✕ Iturgintza
- ✕ Zeramika erakusketa
- ✕ Bainuko altzariak
- ✕ Erreforma osoak



Koadrila arteko XXV. futbol txapelketa

Lehen fasea amaitzeko jardunaldi bakarra geratzen denean final-aurreak jokatuko dituzte. Lau taldeak nortzuk izango diren erabakita dago jada. Badago, Urbitarte Sagardotegia, Tximista Sagardotegia eta Irrintzi taldea izango dira aurtien txapela lortzeko hautagaiak. Atzean geratu dira Bustunmira, E.R.Matxain Ileapaindegia, Wispak, Harrike, Ferro eta Sarri King. Asteburu honetako azken jardunaldia erabakigarria izango da, ordea, bertan lehen lau postuen ordena argituko baita.

Ondoren ekainaren 26an eta uztailaren 3an final-aurrekoak jokatuko dira. Bina neurketa, beraz, lehen fasean aurrea geratu denak laugarrenaren aurka eta bigarrenak hirugarrenaren kontra. Final handia uztailaren 10ean jokatu

tuko da eta ondoren bazkaria izango da Beti Alai Pilotalekuan. Bazkarian, txapelketan parte hartu duten jokalariez gain 25 urte hauetan aritutakoak ere izango dira. Menua oparoa, otarrainskak, paella, entrekota eta ijito besoa. Bazkarirako txartelak herriko hainbat tabernetan daude eskuragarri.

Bestalde, urteurrena ospatu asmoz hainbat ekintza antolatu ditu honetarako bereziki sortutako batzordeak. Ekainaren 21etik uztailaren 10a bitartean ikusgai izango da Barrenan txapelketako argazki erakusketa. Uztailaren 3an umeen jolasak izango dira Enparantza Nagusian eta uztailaren 10ean, finala jokatu aurretik, beteranoen arteko neurketa jokatu da.

Aitor Calvillo

Garagardo festa

Uztailaren 1, 2, 3 eta 4an Errugby Taldeak Udalararen laguntzarekin antolatuta ohikoa bihurtu den garagardo festa izango da Pilotalekuan. Ez dira faltako txerri-ukondo, saltxitxa, girotzeko musika eta nola ez, mota desberdinetako garagardoa.

3x3 torneo

Alebin, infantil, kadete eta nagusien mailetako txapelketak izango dira aurtengoan. Iaz jokatu ez bazen ere Saskibaloitaldekoek ekainaren 26rako antolatu dute berriro ere. Garagartza Plaza eta Enparantza Nagusia saskibaloitxak bihurtuko dira egun horretan. Izenemateak Koiote garagardotegian eta Majori Kiroldegian egin beharko dira.

Bestalde, koadrila arteko saskibaloitxapelketa ere martxan da jada.

Igerilekua irekita

Uda garaiarekin batera kanpoko igerilekua ireki dute jada. Bertan egin ahal izango dira Uda 2004 programako kirol ekintza gehienak. Ekainaren 28an hasi eta uztailaren 23a bitartean aukera zabala izango da: arku-tiraketa, squash, tenis, padel, eskalada, igeriketa, xakea eta abar luze bat. Izenematea Majorin.

Otegienea-Majoriko jaiak

Ekainak 18, ostirala:

17:30ean: Txupinazoa.

18:00etan: Haurrentzako krosa.

19:00etan: Puzgarriak.

20:00etan: Musika.

Ekainak 19, larunbata:

10:30ean: Haurrentzako marrazketa ekitaldia.

12:00etan: 'Charlie' pailazoak.

12:15ean: Aintzinako berebil eta motorren erakusketa.

17:00etan: Arku-tiraketa.

18:00etan: Euskal dantzak.

20:00etan: 'Charlie' musika.

23:00etan: Mozorro lehiaketa.

Ekainak 20, igandea:

11:00etan: Haurrentzako jolasak.

12:00etan: Pailazoak.

13:00etan: Santa Ana Abesbatza.

17:00etan: Toka herrikoia.

18:30ean: Gorriti eta bere abereak.

20:00etatik 22:00etara: 'Charlie' musika.

Ekainak 23, asteazkena:

19:00etan: Sardina jatea.

21:45ean: San Joan sua.

Kurtso amaierako jaiak

Urdaneta Ikastetxeak joaneko ekainaren 12an ospatu zuen kurtso amaierako jaiak Oianguren Parkean. Jakintza Ikastolako txanda, berriz, ekainaren 19an izango da, Enparantza Nagusian eta Beti Alai Pilotalekuan.

San Joan eta San Pedro suak

Hilabete osoa entseगतzen pasata ekainaren 23an iluntzeko 10,30etan izango da hitzordua Garagartza Plazan. San Joan suaren ondoren dantza, birao eta kantuak eskainiko dituzte sargin eta aztiak. Ekainaren 28an ere San Pedro sua izango da Garagartza Plazan.

Kimetz literatura saria

73 lan izan dira aurtien aurkeztu direnak. Horien artean sarituak hauexek: euskaraz idatzitakoan artean lehen saria Zigor Etxanizek jaso du (Orio) 'Karlosen ametsa' lanagatik, gaztelaniaz idatzitakoan artean Angelica Lambru-k (Sagunto) 'Los zuecos rojos' lanagatik. Ordiziarren artean banatutako sari berezia Adur Ezenarrok jaso du 'Plana martxan da!' lanagatik. Sari banaketa ekainaren 5ean izan zen.

Txirristi mirristi

Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko ikasleek udaleku irekiak izango dituzte ekainaren 28tik uztailaren 23a bitartean. Goizez herriko kaleetan barna ibiliko dira eskarmentua duten begirale euskaldunekin.



"Beasain Beningo indioen bihotzean dago"

Beasaingo Udala, Taupadak Gobernu Kanpoko Erakundearen bidez, Amazoniaren erdian dagoen Boliviako Benin departamentuarekin harremanetan dago azken urteetan. Proiektu ezberdinetarako dirua emanez, Beningo indioen lurak eta eskubideak defenditzeko Taupadak erakundea egiten ari den lanarekin bat egiten du Beasaingo Udala.

Horrekin batera, Beasaingo Udala herriko gazteei garapen bidean dauden herrietara joateko ematen dien beken artean, aurtan, Jon Armendariz gaztea joango da. Aurretik, Leire Irastorza, Jone Mateos, Eider Lopetegi eta Ixi

Mateos ere joanak dira, bi barnetegi ezberdinetan parte hartuz. Aurtan, Jon Armendariz, Amazonia erdian dagoen Musiak Eskola batera joango da, musika erakustera.

Beasaingo Udaren eta beasaindarren harremanen lekuko, Beasainen bertan, Taupadak Gobernu Kanpoko Erakundearen egoitza dagoela, herrian sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzeko. Helburu horren inguruan, datoren azaroan, argazki erakusketa egongo da Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Indiarren esker ona

Imanol Aranburu zinegotziarekin eta Eider Lopetegi, Ixi



Jon Armendariz, Eider Lopetegi, Ixi Mateos, Manuel Egiguren, Imanol Aranburu eta Toño Puerta.

Mateos eta Jon Armendariz kooperanteekin batera, Manuel Egiguren eta Toño Puerta azaldu ziren prentsaurrean ekainaren 7an. Manuel Egiguren, Goiatz herriko semea, Beningo gotzaina da eta urte asko daramatza bertako indioen ondoan lanean, beraien eskubideak berreskuratuz eta baliabiadeak hobetzen. Manuel Egigurenek aipatu zuenez, "Beasain Benin-en bihotzean dago. Bertako indiarren partetik eskerrak eman

nahi dizkiot Beasaini. Oso gustura daude Beasainekin eta beasaindarrekin. Askotan esaten dut Beni-sain izena eduki beharko lukeela Beasainek".

Toño Puerta Taupadak GKEko arduraduna da. Beninen bizi bada ere, Euskal Herrira, proiektu berriak aurkezttera etortzen da, eta ahal den lekutik dirulaguntzak lortzen. Kasu honetan, Beasaingo Udaletik.

San Joan sua

Ekainari jai giroan emango diogu amaiera. Aurtan ere San Joan suaren inguruan egingo da San Joanetako ospakizun nagusia. Ilunabarrean emango zaio hasiera, txistulariak Barrendain plazara igoko dira 21:30ean, bertan kokatuko baita festaren erdigunea. Ondoren suziriaren erreketa egingo da eta jarraian bertso saioa entzuteko aukera ere izango da 22:15ean. Suaren inguruan, Ostadar dantza taldekoek 'San Joan zortzikoa eta Ake-larrea' eskainiko dute eta 22:30ean piztuko da San Joan sua Gernika pasealekuan. Gauean zehar berri, Koskola taldearekin dantzaldia izango da.

San Pedro jaiak Arriaranen eta Ezkiagan

Arriaranen. Ekainak 26: 21:00etan, herri afaria. Ondoren bertsolari eta trikitixa. **Ekainak 27: 11:00etan**, suziri eta buruhandiak. **12:00etan**, meza nagusia. **13:00etan** pilota partiduak: kadeetetan, Beñat Oregi-Ibon Iraola Ion Zubiarre-Egoitz Mendiaren aurka eta amateurretan, Agirre-Esnaola Amundarain-Mujikaren aurka. **19:00etan**: Herri kirolak bi talde lehian. A taldea: Iñaki Azurmendi (aizkoran), Eneko Mujika eta J. Ramon Olasagasti (trontzan), eta Aitor Mujika (koskola biltzen). B taldea: Arrospide (aizkoran), Roberto Oregi eta J.J. Azurmendi (trontzan) eta Xabier Lasa (koskola biltzen). **21:00etan**: Herri afaria. Ondoren bertsolariak eta trikitilariak. **Ekainak 29: 11:00etan**: Suziri eta buruhandiak. **12:00etan**:

Meza nagusia. **13:00etan**: Omenaldia herriko agure zaharrenari. Ondoren Joakin Barandiaran zenari omenaldia. **14:00etan**: Herri bazkaria, Zabale, Larrañaga eta Narbaiza bertsolari eta trikitilariarekin. **17:00etan**: Mus eta punttu txapelketa. **21:00etan**: Herri afaria.

Ezkiagan. San Pedro bezperan gauzatuko dute ospakizuna. Aurtan, aurrekoetan bezala, San Pedro bezperako sua piztuko dute. Eta ondoren, ilunabarrean zehar, buruhandiak, txistulariak, sardina-jana eta txistorra-jana izango da. Gualdean dantzaldia izango da.

Euskaraz lan egiteko lanpostuen berri

Beasaingo Udala Deustuko Euskalkidetza Koop.E. rekin sinatutako hitzarmenari esker, Beasaingo udalaren web-gunean (www.beasain.net), atariko orrian, Euskalkidetza anagrama azaltzen da eta bertan sakatuta, euskaraz lan egiteko hainbat lanposturen berri izango dute interesatuek. Bestalde, euskaraz ongi lan egiteko prestatuta dagoen pertsonak, bere curriculumare ere jarri ahal izango du enpresek ikus ahal izan ditzaten. 2007 arte bederen doan izango dute zerbitzu hau. Euskaraz lan egiteko ongi prestatuta dagoen langilea aurkitu nahi duen enpresak ere, lanpostua iragarri ahal izango du bertan. Informazio gehiago nahi duenak, dei dezala Udaleko Euskara-zerbitzura; 943 02063 telefonora, edo idatzi posta elektronikoz helbide honetara: euskera@beasain.net

OPARI

Bideluze plaza, 1
BEASAIN
Tel.: 680 953 028

Ekainaren 25ean
irekiko dugu



Altzari auxiliarra
Tresneria
Opariak
Osagarriak
Jostailu didaktikoak
Bisuteria
Etxeko arropa
Zeramika
eta abar...



Dolarea

jatetxea

Gure eguneroko menuak edo enpresa menuak dastatzera gonbidatzen zaitugu: betiko otordu eta ezohizko jakien konbinaketen dastamenera.

Etxeko otordurik onenen pareko!

Nafarroa etorbidea
21 Beasain
T. 943888 829



Uda ate joka

Eskolaumeak izango dira lehenengo opor egiten

Udako oporraldiari hasiera emango diote gaur Balentza-tegi herri eskolan, festa giroan eman ere; neska-mutikoen arteko futbol partidarekin, irakasleak tartean direla, agurtuko dute ikasturtea. Dagoeneko eginak dituzte, ordea, urte bukaera ospatzeko zenbait aktibitate. Ez denak, hala ere.

Aurreko urteetako espe-rirentziari jarraituz, hoge egu-neko igeriketa ikastaroa buru-tu dute eskolako ia 30 ikaslek Zumarragako kiroldegian, maiatzean hasita. Goizeko or-dutegiarekin hasi aurretik, ekainaren 4an ikasle guztiek Ostaturun bazkaldu zuten, orain urte askotatik datorren ohitu-ra mantenduz. Ikasleek eurek asmatu eta sendotutako ekin-tza da guztiek batera azken egunean otordua ikastetxeko

jangela zerbitzua eskaintzen duen Ostaturun egitea.

Nafarroako Beire herrian egonaldia egin dute, bestalde, lehengo asteko ostegun-osti-raletan haurrek. Festa giroa eten gabe, Aizarnazabalgo eskola txikien festarekin ja-rraitu zuten pasa den igande-an eta jai honetan, ekainak 20, gurasoekin Pagoetako nat-ur parkera antolatu dute txangoa. Eskolaumeak ez daude, ikusten denez, ikasge-lako liburuekin bakarrik ari-tzeko.

Oporrak opor, datorren ikasturteari begira udala he-rriko eskolan 0-3 urte bitarte-ko umeentzat haurtzaindegi zerbitzua sortu nahian dabil. Hezkuntza saileko arduradu-nekin negoziazio fasean dago oraingoz proiektua.

Aimar Maiz

San Joan bezpera

Antzinako usadioan su-meta piztuz egingo zaio ongiatorria uda sasoiari. Urteko gaurik motzenaren atarian sutuko da da-goeneke prest dagoen San Juan meta, ekainaren 23ko iluna-barrean, eta garren inguruan dantza egiteko aukera izango du-te gerturatzen diren guztiek, Goruntz taldeko dantzariarekin ba-tera. Herri dantzak entsaiatzeko bihar larunbaterako jarria da-go hitzordua, arratsaldeko 5,30etan, dantzalekuan.

Txindata musika eskola

Musika ikasleentzat ere iritsi da urtean zehar ikasitakoa plaza-ratzeko garaia. Herriko musikari txikiek kide ormaiztegiar-re-kin batera kontzertua eskainiko dute datorren ekainaren 23an Ormaiztegin, arratsaldeko 6ak aldean hasita.

Bataio kopuru historikoa

Inoiz ezagutu ez den bezalako bataio-igande oparoa izango da ekainaren 27a. Zazpi ume jaioberri bataiatuko dituzte egun ho-rretan Jasokunde elizan, gure herri koxkorreko egundoko errekorra, lehen aldiz ikusiko den irudi historikoa.

Emakumeen bazkaria

Giro politoan egin zuten emakume gabiriarrek lagun arteko bazkaria Korta jatetxean pasa den igandean, ekainaren 13an. Herriko nahiz kanpoan bizi diren 30 lagun inguru bildu ziren ekitaldira, 50 urte modutsutik hasi eta edadetuagoetara. Eguer-dian meza izan zuten, Korpus egunari zegokion prozesio eta guzti, eta bazkaldu ondoren arratsalde osora luzatu zen bilku-ra.

Labur labur

- Euskal Bizikletako 3. etapan Aztiriko mendatea igaro zuen txirrindularien tropel koloretsuak, ekainaren 4an.
- Goruntz dantza taldea Ordiziako dantzari txiki egunean partaide izan zen, ekainaren 6an.
- Loinatz jaietako azoka berezian Agerreberriko Maria Etxe-zarretari eman zioten postu dotoreenarentzako saria, maiatza-ren 25ean.
- Europar hauteskundeak. 340 laguneko eroldaren baitan 187k bozkatu zuten (abstentzioa % 44,12koa), honako emai-tzarekin: EA 78, EAJ 54, Aralar 10, PSE-EE eta PPK bana eta baliogabeak 41.
- Premiazko odol ateraldirako deia dago Gabiriako odole-maileentzako, ekainaren 22an Ormaiztegiako osasun-etxean.
- Elizako kanpandorreko ordularia eta ordu-kanpaiak berri-z martxan daude orain bi astetatik hona, urtetan isilik egon on-doren.
- Udaleku irekiak antolatu dira udarako herrian. Informazioa hurrengo alean.



kutxa

gizarte ekintza

Ekaineko ekitaldiak

Ekaineko opor usain eta kurtso bukaera medio, ekitaldi eta ospakizunez beterik daturkigu urteko seigarren hila-bete hau. Hona hemen laburpen bat:

Ekainak 18, ostirala:

14:30etik 17:30era: Ikasturte amaierako festa eskolako patioan, Guraso Elkartek antolatuta. Arratsaldean zehar joko eta puzgarriak egongo dira.

18:00etatik 19:40etara: Junior mailako Gipuzkoako Txirrindulari Itzulia.

Ekainak 20, igandea:

12:00tan: Ikasturte amaierako meza. Bittorio Zabalgogaskoren eskutik.

Ekainak 22, asteartea:

18:30ean: Tobera Musika Eskolako ikasleen kurtso bukaerako kontzertua Parrokian.

Ekainak 23, asteazkena:

San Joan Bezpera

19:00etan: Arbola jasotzea

herriko txistulariek giroturik.

Ondoren Tobera Musika Eskolako haurren dantza saioa herriko txistulariekin. Tobera Musika Eskolako hurrek San Juan dantza egingo dute ohitura zaharra berreskuratuz.

Ekainak 24, osteguna:

San Joan eguna:

Ohiko afarria Udaletxe azpiko arkupeetan. Lekua hartzeko izenematea: ekainaren 14tik 17ra Udaletxean.

Ekainak 29, asteartea:

19:00etan: San Pedro Ermitan Meza. Bittorio Zabalgogaskoren eskutik. (Oharra: goizeko 9etako mezarik ez da izango San Martin Parrokian).

Uztaiak 4, igandea:

Aizkorriko Lagunen

eguna:

Lagunarteko bazkaria izango da Kiroldegian.



Orkatz eta Coral Sant Sadurni

Ekainaren 4tik 6ra Zegaman izan ziren Coral Sant Sadurni-ko partaideak eta Sant Sadurni d'Anoiako udal agintari eta gainerako laguntzaileak. Bi egun soilik, baina bete-beteak izan direla esan dute antolakuntzatik. Elkaraldatze honen ardatza musikak uztartutako giza harremanak dira; eta musika arloari dagokionez, esan kontzertu arrakastatsua eskaini zutela bi abesbatzek larunbat iluntzean San Martin Elizara hurbildutakooi.

Antolatutako beste ekintzen artean garrantzitsua eta jendetsua izan zena, Udaletxeko harrera ofiziala izan zen, Udalera igo aurretik herriko plazan Orkatz Txikik eta Txistulariek eman zieten ongi etorria, ondoren, jendez lepo zegoen pleno aretoan Juan Inazio Galdos herriko alkateak egin zien harrera Coral Sant Sadurni eta Sant Sadurni d'Anoiako udal agintariari. Bere hitzaldian, alkateak bi abesbatzek martxan jarritako harreman honek, bi udalen arteko harreman hestutako batekin jarraipena izateko borondatea agertu zuen, eta hori posible izan zedin eman beharreko urratsak emateko pret agertu zen. Ondoren Sant Sadurni d'Anoiako alkate den Joan Amatek hartu zuen hitza eta harreman honek liluratu zuela adierazteaz gain, Zegamarekin harremanak estutzeko apustua egin zuen.

'Mediku-etxea' salgai

Aseginolaza Etorbidean aspaldidanik ezagutu dugun mediku-etxea, Zegamako udalak enkante publikora atera du. 2004ko ekainaren 7an Udal Batzarrak erabaki zuen orain dela denbora gutxi arte mediku-etxea izan dena, berari dagokion lursailarekin saltzea, eta honetarako enkante publikoa deitzea. Lizitazio oinarria 219.609,29 eurokoa izango da, eta prezio hau hobetu beharko duten eskaintzak aurkezteko epea uztailaren 22a artekoa izango da. Baldintza plegua Udaletxean jaso ahal izango da eta edozein argibidetarako 943 801115 telefonora deitu behar da.



San Adrianen meza

Joan den igandean zegamarrok San Adrianen izan genuen hainbat mendeetan eusten diogun ohitura zaharrari eutsiz eta bizi emanaz, urteroko zita; San Adrian eguna ospatu genuen kobazuloan bertan, Bittorio Zabalgogaskoak emandako meza entzunaz eta udalak eskainitako hamaiketakoaz, lagunarteko giroaz eta paregabeko paisaiaz gozatuz.

V. Argazki lehiaketa

Aurtengo San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko, argazki lehiaketa antolatu du Udalak. Edonork har dezake parte lehiaketan. Gaia, Zegama da. Kolore nahiz txuri-beltez. Argazki muntaiak ere onartuko dira, baita argazki zaharrak ere. Saria: 180 euro. Oinarri osoak udal bulegoetan daude eskuragarri.

Herritarren %65ak euskaraz daki

Udalak eskatuta, herritarren hizkuntza errolda egin du Siadeco enpresak; hau da, udalerrian erroldatuta dauden herritar guztien euskara ezagupenari buruzko datu indibidualizatu eta pertsonalizatuak jaso egin dira. Ezagupenari buruzko datuekin batera, herritarrei Udalarekin ahoz eta idatziz komunikatu behar duenean zein hizkuntza erabiltzea nahiko luketen galde-tu zaie. Datu pertsonalizatu horiek guztiak datu-base batean bildu dira, egokiro prestatuta Udalak udal errolda eguneratu ahal izan dezan. Datu bilketa zabal honek, herrian euskararen normalkuntzaren aldeko dinamika berri bat martxan jartzeko aukera eskaintzen du, Udalak herritarrekin dituen ahozko nahiz idatzizko harremanei begira, herritarren hizkuntza gaitasuna zehazki ezagutzeaz gain, ahoz edota idatziz Udalarekiko harremanak euskaraz nahi izango lituzketen herritarren identifikatzea ere badelako urrats garrantzitsua.

Udalak idatzizko harremanak 18 urtetik gorako herritarrekin baditu ere, Lazkaon erroldatutako biztanle guztiei buruzko datuak bildu dira, haur, gazte nahiz heldu, euskaldun zein erdaldun.

Ondorioak

Informazioa prozesatuz honako ondorioak atera ahal ditugu:

- Lazkaon 2 urte edo gehiago duten herritarren %65 euskalduna da (euskaraz

ongi/oso ongi hitz egiten duela adierazi du); %8,8 ia euskalduna da (euskaraz zerbait hitz egiteko gai da, baina ongi ez), eta %26,1 erdaldunak (euskaraz batera hitz egiteko gai ez direla adierazi dute).

- Herritar euskaldunen %86,2 alfabetatua da (euskaraz ongi/oso ongi irakurri eta idazteko gai dela adierazi du); %11,9 erdizka alfabetatua (ez du ongi irakurtzen edota idazten), eta %1,9 alfabetatu gabea.
- Adinaren arabera, 20 urtez beherako lazkaotar ia guztiak (%96) euskaldunak dira (horietako gehien-gehienak alfabetatuak); 20-39 urte bitartekoen artean euskaldunen ehunekoak %82,5ean kokatzen da; eta 40 urtetik gorakoekin artean aldiz euskaldunen ehunekoak behera egiten du nabarmen, %50aren inguruan kokatuz. 80 urtetik gorako herritarren artean, euskaldunen ehunekoak gora egiten du berriz (%64,7).
- Ia euskaldunak adin multzo jakinetan biltzen da eta 30 eta 60 urte bitartean kokatzen dira nagusiki (batetik bat 30-50 urte bitartean).
- Herritar erdaldunen ehunekoak gora egiten du adinean gora joan ahala, (80 urtetik gorakoekin salbuespenarekin) eta 60-80 urte bitartekoen artean herritarren erdiak inguru erdaldunak dira.

Lazkao Kirol Elkarteak

Urtean zehar talde guztien jarraipena egin ondoren azken balantzea egitea geratzen zen jokalariei eta teknikari guztien aldetik. Horretarako denak Amebi sagardotegian elkartu ziren eta giro ederrean amaitu zuten denboraldia. Saria denak izan zuten afaria bukatu ondoren baina eginiko denboraldiaren arabera taldeko hiru ordezkariak jaso zuten. Errejonial mailan, Aitor Tello izan zen jokalariei hoberenaren saria jaso zuena, Aitor Maiz goleatzaileenarena eta Aratz Aldanondok erreregularitasunaren saria jaso zuen. Jubenil mailan mailaz igo dira eta ondorengoak izan ziren saridunak: jokalariei hoberena Eneko Antoñanzas izan zen, goleatzaileena Unai Estala eta erreregularrena Arkaitz Lopez izan zen. Infantil mailan, berriz, Kevin Ortega jokalariei hoberena, Iker Garcia goleatzaileena eta erreregularrena Joseba Barandiaranentzat izan zen.

Denboraldi hau bukatu ondoren aste honetan elkartu dira jokalariei guztiak datorren urteari begira zein jokalariek jarraituko duten, zein berri izango diren eta abar ikusteko asmoarekin. Goierri bailara guztiko jokalariei onartuko dira.

Pilotariak kanpoan

Nahiz eta abantaila polita izan lazkaotar pilotariak ezin izan zuten lortu finalerdietako txartela beasaindarrak bi tantorengatik irabazi baitzien azken txanpan.

Algaba txapelkun

Eider Algaba lazkaotarra Euskadiko txapelkun izan zen Durangon, pistan, 3 kilometro martxan modalitatean. Espainiako txapelketara joateko txartela lortu du.

Areto futbola

Bi jardunaldiren ondoren bide onetik doa txapelketa herrikoia. Partiduak larunbat arratsaldetan jokatzen dira ikastolako bi kantzetan. Oraindik lehen txandan dira talde guztiak eta berdintasun handia erakutsi dute orain arteko neurketa guztietan. Hurrengo larunbatean atsedendia izango dute antolatzaileek denboraldi bukaerako bidaia baitute.

Joxe Mari Kerejeta pala txapelketa

Lehen pala txapelketa antolatuko da Joxe Mari Kerejeta zena-oren oroimenean. Txapelketa uztaileko hilabetean hasi eta bukatuko da. Izen emateko azken eguna hilaren 20an da, interesatuak pasa daitezela Manuelene tabernatik.

Mendi irteera

Azken irteera ekainaren 20an izango da, Txindokira. Interesatuak jar ditezela ikastolako arduradunarekin.

I. futbolin txapelketa Kiroldegi tabernan

I. futbolin txapelketa antolatu da Kiroldegi tabernan. Izen ematea zabalik dago ekainaren 27ra arte eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar ditu. Sariak: irabazleak diruaren %50a eta trofeoak, 2.ak: %30a eta trofeoak eta 3.ak: %20a eta trofeoak. Txapelketa uztailean jokatuko da.

Aitor Tello

Kirol ikastaroak 2004

Uda ate joka dugun honetan, jada ekin diote aurtengo kirol jarduerak prestatzeari. Urteroko ohiturari jarraiki, aurtenera, 8 eta 16 urte bitarteko gazteentzat ekimen ugari antolatu dituzte:

Eskalada: ekainaren 5etik 9ra izango da. Jentilbaratzen arituko dira, iraupena 15 ordukoa izango da eta prezioa berriz, 15 euro.

Arku tiraketa: ekainaren 28tik uztailaren 2ra arte. Auzoeta Kiroldegian izango da. 10 orduko iraupena eta 15 euroko salneurria.

Patin irristaketa: uztailaren 12tik 16ra bitarte. Auzoeta Kiroldegian egingo da eta 10 orduko iraupena izango du, sarrera 15 euro.

Piraguismoa: uztailaren 12tik 17ra bitarte Agauntza errekan arituko dira. 12 orduko iraupena izango du eta 15 euroko salneurria.

Espeologia: uztailaren 19tik 23ra bitarte Ataungo kobetan barna lan egingo dute. 12 orduko iraupena izango du ekimenak eta 15 euroko salneurria.

Interesatuta dagoen orok Auzoeta Kiroldegian eman behar du izena ekainaren 19a baino lehen. Gogoratu, ekimen hauek aseguru batek babesturik daudela. 16 urtetik goragokoei interesa izanez gero Auzoeta Kiroldegian bertan aditzera eman behar da, telefonoa: 943180384 da.

Umeentzako aisialdia

Aurtenera, umeentzako udaleku librea antolatu dute. 4 urtetik 8 urtera bitarteko haurrek ekimen ezberdinak buru-

tuaz (jolasak, ibilaldiak, eskulanak...) denbora, lagun artean igarotzeko aukera izango dute. Guztiak ere 2 begiralek zainduko dituztelarik.

Ekainaren 21etik uztailaren 16ra bitarte hiru auzotan elkartuko dira, goizeko 10,30etatik 12,30ak arte.

San Martinen (Zelaieta azpian): astelehena eta osteguna.

San Gregorion (Elkargunean): astearte eta ostiralean.

Aian (Haitzarri Elkartearen): asteazkenetan.

Auzo bakoitza kontuan izanik, zerbitzu hau ibilkorra izango da eta gurasoen esku geratuko da umeen eraman-ekarria.

Izen ematea Udaletxean egingo da, ekainaren 19a baino lehen eta 15 euro ordaindu beharko dira.

Sari banaketako afaria

Urteko kirol desberdinetako irabazleei sariak banatu aurretik, txapelketa jokatuiko dira ekainaren 24an eta 26an, Zelai pilotalekuan eta Auzoeta Kiroldegian hurrenez hurren:

Osteguna, 24 Zelai pilotalekuan:

15:00etan: Badmintona, 3. adinekoak.

15:30ean: Badmintona, helduak.

Larunbata, 26 Auzoeta Kiroldegian:

11:00etan: Eskuz binaka.

12:00etan: Frontenisa, neskek.

15:00etan: Tenisa.

16:00etan: Pala



Aldazbarrenako atsedeen lekua berreskuratu nahi dute, horretarako igandean txukuntze lana burutuko dute.

Auzolana Aldazbarrenako atsedeen lekuan

Ataundarrok Herri Bilgunekeo kultura arloak San Isidro astean nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldi batekin ekin zion. Datorren asteburuan, hilak 27, Haitzarteko Aldazbarrena atsedeen lekua txukuntze lanak egiteko auzolan bat deitu dute. Horretarako herriko elkarte ezberdinei eta herritar guztiei ere gonbitea luzatzen diete laguntzera animatu daitezten. Ekimen honetarako deialdia kalean ere luzatu dute, kartelen bidez. Epe laburrerako helburua Aldazbarrenako atsedeen lekua txukuntzea bada ere, etorkizunari begira erronka gehiago proposatu nahi du Ataundarrok taldeak. Txukunketa lanak amaitu ondoren, batzarra burutuko dute atsedeen lekuan bertan, egoera honetaz eta etorkizuna planteatzeko.

Animatzen diren guztiak goizeko 9etan izango dute hitzordua San Martin plazan. Ordu erdi beranduago, Beamako zelaian autoak utzi eta oinez igoko dira Aldazbarrenara. 10etatik 11etara txukunketa lanak egingo dituzte, 11etan hamaiketarako pausaldia barne, 11.30etan Batzarrari hasiera emango zaio: "Zer egin dezakegu Aldazbarrenako atsedeen lekua berreskuratu eta errespetatua izan dadin" gaiaren inguruan. Eta 12,30etan, auzolanari amaiera emango zaio.

Doltza Barandiaran

17:00etan: Frontenisa, mutilak.

18:00etan: Areto futbola.

Iluntzeko 9etan Bitor jate-txean Otso Festa 2004ko afaria egingo da, irabazleei saria banatuko zaizkie. Tartean herriko Urrezko Otsoa saria arrazoi batengatik edo beste- rengatik nabarmendu diren

herritarrei emango zaie. Afari honekin, aurtengoz amaiera emango zaio Otso Festa 2004 kultur ekitaldi guztiei.

San Joan eguna

Ekainaren 26ra bitarte luzatuko da Otso Festa 2004. Ekitaldi honen barruan, ekainaren 23an, San Juan eguna ospatzeko, sua egingo da.

HZ bozkatuena

Ekainaren 13ko Europako hauteskundeetan HZ talde ilegalizatua izan zen herritarren botorik gehiena jaso zituena (219). Ondoren EA (191), EAJ (174), PSOE (13), PP (9), EB (7) eta Aralar (3). Hiru alderdi nagusiek boto galera izan dute 1999ko hauteskundeekin alderatuz. Abstentzioa %38,14koa izan zen, aurrekoetan %13koa. Hala ere, Oresa eta Zerainen ondoren, Gipuzkoako abstentziorik bajeuna.

Udako aisialdia

Jolas eta denbora pasarako 2tik 12 urte bitarteko umeek aste honetan ematen dute izena. Begirale lanetan aritzeko, 12 begiralegai daude apuntatuak. Uztailaren 1ean, goizeko 10etan plazan elkartuta, uztailaren 22 arte arituko dira astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara. Talde banaketak, aktibitate ezberdinak eta aisiguneak zehazten ari dira begiraleak. Egitarauaren aurkezpena ekainaren 30ean, 19:00etan, kultur etxean egingo diete haurren gurasoei. Partehartzaile bakoitzak 30 euro ordaindu beharko du.

Igerilekua

Ekainaren 21ean emango zaio irekiera udako denboraldiari. **Igeriketa ikastaroa.** 5 urtetik gorakoentzat, uztailaren 5etik 23ra, 12:30etik 13:30era. Irakaslea: Jokin El-koro. Izen ematea, udaletxean edo igerilekuan.

Herritarrei inkesta

Udalak, 8-9 galderaz osatutako inkesta orria eta hau betetarik itzultzeko gutunazala banatu du etxex etxe. Galderak, baserriko eta herriko produktuek sortzen duten interes,

behar, kontsumo eta abarrei buruzkoak dira. Sobreak, korreoseko buzoietan edo udaletxean utzi behar dira ekainaren 30erako. Ondoren, emaitzak aztertu eta balorazioa egin nahi da, arlo honetan nondik, nora eta nola jo jakiteko.

Pelota finala

Hilabetez izan duen 'Bost herri arteko'-aren finala jokatu-ko da ekainaren 20an, Zegaman. Zegamarra eta Segurarrak ailegatu dira. Partiduak goizeko 10,30etan. Segurako talde-ekin ondorengoak jokatu-ko dute: Benjaminetan: Iker Zabala eta Iñigo Imaz. Alebinetan: Eñaut Arretxe eta Iñaki Intxausti (Zerain). Infantiletan: Ander Kaloka eta Eneko Arzelus (Zerain).

Txirrindulari probak

Gipuzkoako juvenilen XV. itzulua. Zegama, Olaberri eta Andoingo etapen ondoren, Seguran irten eta amaituko da azken etapa, ekainaren 21ean. Arratsaldeko 4etan plazatik irtenda 75 km egin ondoren, 18:00ak aldera amaituko da leku berean. Lierni 3 aldiz, Ergoena eta helmuga aurretik berriro ere Lierni igo beharko dute Ormaiztegi aldetik.

Elite eta 23 urtez azpiko San Joan proba. Arratsaldeko 4etan plazatik irtenda, 111 km egin ondoren, 18:55 aldera amaituko da.

Futbol deialdia

Segurako futbol taldeak 2004-5 denboraldirako deialdia luzatu du. Errjonaletan jokatu nahi dutenek uztailaren 23an, 20:00etan. Jubeniletan aritzeko (1986, 1987, 1988an jaiotakoak), uztailaren 23an, 19:30ean. Kadetteetan (1989, 1990 jaiotakoak),



Pasa den astean 'Robin Zurrut'-ek 'Segurs' kanporatu zuen.

Finalaurrekoak futbitoan

Gaur, ekainak 18, jakingo dira IV. futbito txapelketako finalistak. Arratsaldeko 7etan 'DJ π' eta 'Robin Zurrut' neurtuko dira eta ondoren 'Ostegunean loto' eta 'Guk asteazkenean'. Finala, festetako koadrilaren egunean jokatu-ko da, ekainaren 26an, 12:00etan.

uztailaren 9an, 18:30ean. Infantiletan (1991, 1992 jaiotakoak), uztailaren 2an, 17:30ean. Guztiak Alustiza futbol zelaian.

Labur-labur

- **Eneko Agirrezabal.** Pista irekiko 800 metroan, estatuko txapelketan parte hartzeko gutxienezkoa lortuz (1:54:83) proba ere irabazi egin zuen Anoetan. Uztailaren 3 eta 4an, Zaragozan Espainiako txapelketan parte hartuko du 800 metroan juniorren mailan. Asteburu honetan klubaren arteko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko du Anoetan.
- **Martxeliño Agirre.** Ekainaren 13an, Ereñozuko Sanantoniotako bola proba irabazi zuen 6 botalditan 35 birla jota.
- **Babes ofizialeko etxeen zozketa.** Ekainaren 16an zoz-

ketatu ziren notario aurrean Urrustiñenean eraikiko diren 12 etxebizitzak. 18 herritar interesatuk zuten izena emana. Urte eta erdirako espero da obrak amaitzea. Eraikuntzako greba dela eta, azterketa arkeologikoa ez da oraindik amaitu. Obra lanak ondoren hasiko lirateke.

● **Kostako itzulua.** Segurako zikloturisten taldeak uztailaren 3rako antolatu zuen ateraldia, uztailaren 10era atzeratu dute. Egitaraua hurrengo alean.

● **Festetako egitarauaren portada.** Laiotz Herri Eskolako haurrek egindako marrazkien artean aukeratua izan da.

● **Eskulan erakusketa.** Laiotz Herri Eskolako ikasleek eginak. Ardixarra etxean ikusgai festa bitartean.

Joseba Telleria

San Pedro jaiak Santa Lutzi auzoan

Ekainaren 26an hasiko dira San Pedro jaiak Santa Lutzi auzoan. Uztailaren 10ean, Junior mailako Santa Lutzi Saria txirrindulari probaren ondoren izango den sardina jana emango die amaiera jaiari. Segidan duzue, egunez eguneko egitaraua:

Ekainak 26, larunbata:

17:15ean: Ipuin kontaketa.

Ondoren: Ponyak eta bu-
ruhandiak haurrentzat.

18:30ean: Futbol partidua:
ezkonduak ezkongabeen aur-
ka.

21:00etan: Herri afaria. Izen
ematea ekainak 21 baino le-

hen egin behar da, udaletxe-
an.

Ondoren: Erromeria, Gari,
Iñaki eta Jonekin.

Ekainak 27, igandea:

12:00etan: Meza.

Ondoren: Toka txapelketa
eta patata tortila txapelke-
ta.

17:00etan: Mus txapelketa.

Ekainak 29, asteartea:

San Pedro eguna:

10:00etan: Txistulariekin ka-
lejira.

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriako Goruntz
dantza taldearen saioa.

Jarraian: Hamaiketakoa,
Anduaga Elkartean.

16:30ean: Ume jolasak.

Ondoren: Txokolate jana.

Uztailak 10, larunbata:

16:30ean: Junior mailako
'Santa Lutzi Saria' txirrindu-
lari proba. **18:30ean:** Proba-
ren bukaera Igartu Beitin.

Ondoren eta festei bukaera
emanez, sardina jana.

Itsasondo



Uda kanpaina

Aurten ere Herri Eskolak an-
tolaturik ekainaren 21etik uz-
tailaren 23ra 2-12 urte bitar-
teko haurrentzat Uda Kanpai-
na antolatu da. Goizeko

10etatik eguadiako ordu bate-
tara hainbat jolas, eskulan eta
ibilaldi egiteko aukera izango
dute gure neska-mutil gazte-
ak.

San Joan sua

Euskal Herriko hainbat eta hainbat txokotan gertatzen den mo-
duan Itsasondon ere udarari behar bezalakoa harrera egiteko
San Joan egun bezperako sua egingo da.

Sua arratsaldeko 8,30etan piztuko degu pilotaleku aurrean
eta egona alaitzeko sardinak, txistorra, ardoa eta sagardoa izan-
go ditugu lagungarri. Aprobetxa dezagun gaua urtean zehar pi-
latutako gertaera eta gogo txarrak surtara bota eta bidez batez
San Joan gauaren majiaz gozatzeko.

Parte hartu nahi duzuenok
izena eman lehenbailehen es-
kolako 943 887704 telefono-
ra deituz.

dira: abestiak, dantzak... Ja-
rraian merienda izango da eta
honen ondoren bereziki hau-
rrei zuzendutako ikuskizuna
izango da.

Eskolako festa

Ekainaren 19an, eskolak bere
urteroko festa antolatu du.
Hasiera, arratsaldeko 4etan
emango zaio eta urtean zehar
haurrek egindako lanak ikus-
gai izango dira guraso eta
gainerako ikusleentzat.

Ondoren haurrek prestatu-
tako hainbat ikuskizun izango

Honen ondoren jolasak
izango dira eta bukatzeko
afari eder bat izango da herri-
ko elkartean.

Aukera hau aprobetxatu
nahiko du eskolak herritar de-
nak festa honetara gonbida-
tzeko. Hauxe modu ederra
oporre hasiera ona emate-
ko!!!

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkartokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabe

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48





Aste Berdeko ekitaldiak

Maiatzaren 31tik ekainaren 6a bitartean egin ziren Aste Berdeko ekintzak, bi hain zuzen ere. Lehenengo ekintza

mendiaren eta herriko kontserbazioaren ingurukoa izan zen eta bestetik ekainaren 6an mendi irteera egin zen, herri

Lierniko Ama Birjina itzuli da bere txokora

Bi hilabete inguru Elizbarrutiko museoan erakustaldi batean egon ondoren, berriz ere Lierniko ermitan da Ama Birjinaren irudia.

Mediku zerbitzua uda garaian

Ekaina, uztaila, abuztua eta irailean larrialdietako zerbitzua 14:00etatik aurrera Beasaingo anbulategira jo beharko da. Bertako telefono zenbakia 943-027700 da.

Europako hauteskundeetako emaitzak

Ekainaren 13an izandako europar hauteskundeetako emaitzak honako hauek izan dira: Galeuskak 23 boto, Eak 8, Ezker Batuak 2, PSEk boto 1 eta 25 boto baliogabe, horietatik 24 Herritarren zerrendari zegozkionak. Beste herri askotan bezala abstentzioa izan zen nagusi, bozkatzeko aukera duten 134 biztanletatik 59k eman dute bere botoa, herritarren %44k eman du botoa.

lurrak bisitatzea, Zerain, Gabiri eta Legazpi herriein dituen mugarriak ikusiz. Argazkian ikusten da ibilaldia

egindako herritar multzoa Aizpuru mendiaren gainean.

Iñaki Ugalde

San Joan ospakizunak

Aurten ere iristear dugu San Joan eguna. Bezperarako, San Joan suaren inguruko festa egitaraua prest dago.

Ekainaren 23an, 18:15ean, Txindata Musika Eskolako txistulari taldearen kalejira herriko kaleetan zehar. 18:30ean, Txindata Musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua herriko enparantzan. Amaieran, partaideek ogitarteko eta edariak dastatzeko aukera izango dute. 20:30ean, Zumarragako trikitilariak alaituriko giroa buruhandien laguntzaz herriko enparantzan. Jarraian, tan-

taia altxatzea herri gunean. 22:00etan, San Joan suaren piztea, Hondarribiko Amute Txalaparta Eskolako txalapartariak eta Zumarragako trikitilariak alaituriko giroan.

Odol ateratzea

Odol emaileen elkarteak antolatuta, datorren asteartean, ekainak 22, herriko mediku kontsultorioan arratsaldeko 6etatik aurrera odol ateratzea egingo da. Odol premia oso handia denez herritar guztiei dei egiten zaizue.

Aitziber Murua



Hamar haurrek egin dute jaunartzea

Ekainaren 6an herriko hamar haurrek egin zuten lehenengo jaunartzea. Elizkizuna eguerdiko 12etan herriko Ander Deunaren parrokan ospatu zen. Aurtengoan lekuko hori hartu dutenak bost neska eta bost mtil izan dira: Ander Alonso, Alvaro De Carballo, Eneko Etxeberria, Larraitx Gerenabarrena, Irune Hernandez, Eider Irizar, Eneko Lerma, Maialen Mujika, Josune Sarasate eta Iker Urreta.



Zeraingo Turismo Bulegoa Itourbask-en Goierriko lehena

Eusko Jaurlaritzako Turismo sailak kudeatutako Itourbask sarean sartu den Goierriko lehen turismo bulegoa da Zeraingo. Interneteko sare honen bitartez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako turismo bulegoak beren artean harremanean egongo dira uneoro. Horrela, bulegoen arteko elkarlana bultzatuko da, modu horretan azken helburua lortzeko: Erkidegoko turismo jarduera indartzea.

Oraingoz, sarean ez dira Euskal Herriko turismo bule-

go denak sartu, baina, aurrera begira sare ahalik eta gehien zabaltzea espero dute. Momentuz, Zeraingo turismo bulegoa da Goierriko lehena. Horretarako, azken urteetako ibilbidean hartutako esperientziaz gain, hainbat baldintza bete behar izan ditu. Horien artean, lokala ezinduentzat egokitzea eta sarean konektatuta egoteko beste ordenagailu bat jartzea.

Turismo bulegoa kudeatzen duten Aldabe enpresakok gustura azaldu dira esku



artean duten proiektu berriarekin. "Gaur egun bulegoen artean dagoen komunikazio eza ekidingo da sarearen bitartez", zioen Aitziber Makazaga arduradunak. Hemendik aurrera Zeraingo turismo bulegotik Euskal Herri guztiko turismo eskaintzaren berri eduki ahaliko da momentuan. Horregatik, kanpotik herrira datozenentzat ez ezik, herriko edo ingurukoentzat ere informazio baliagarria egongo da, Euskal Herria bisitatzekoa as-

moa badute.

Hau dena, komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten abantailak esker egin ahaliko da. Sare birtual horren bidez, espazioaren eta denboraren mugak gaindituko dira eta bezeroak askoz ere informazio zehatzagoa izango du. Itourbask-en dauden eskaintza turistiko denen berri zehatza eduki ahaliko da Zeraindik, bertatik.

Ion Muñoa

Jubilatuentzat egun pasa

Udalak urtero egin ohi duen moduan, jubilatuentzat egun pasa antolatu du. Printzipioz, ekainaren 26an egingo da txangoa eta honako programa du: goizeko 9etan autobus geltokitik irteera; Iratxeko monasteriora bisita eta arratsaldean Lizarra aldera. Interesatuta dauden jubilatuak alait lasterren, udaletxean izena eman behar dute.

Festak antolatzekeo bilera irekia

Herriko Andramari festak antolatzekeo Kultur Etxeak herritarren iritzia eta ideiak jakin nahi ditu. Horretarako ostiral hone-tarako, ekainak 18, arratsaldeko 6etan bilera irekia antolatu du Kultur Etxeko areto gusian.

Mandio itxita

Joan den astelehenaz geroztik, hilak 14, Mandio taberna itxita dago oporregatik datorren uztailaren 1 arte.

Europako hauteskundeetako emaitzak

Ekainaren 13an, egin ziren Europako hauteskundeetan Zerain honako emaitzak izan ziren: EAJ 64 boto; HZ 60 boto; EA 16 boto; Aralar 4 boto; PSOE 1 boto. Partehartzea %67,7koa izan zen.

Katekesiko merienda

Gaur ostirala, ekainak 18, katekesiko merienda egingo da arratsaldeko 5,30etan Apaiz etxean. Katekesi urteari amaiera emango zaio eta Gabonetan eskean ibili ziren haur denak gonbidatuta daude bertara, katekesian dabilzanak eta ez dabilzanak.

Photoshop-eko ikastaroak

Joan den asteaz geroztik, astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 6,30etatik 9etara, Photoshop-eko ikastaroak ematen dira Kultur Etxeko ordenadore gelan. Ikastaroa doakoa da eta Cbank-cda eta Eusko Jaurlaritzak eskainitakoa.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53

Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Illati elkartearen eguna ekainaren 26an

“Euskaraz joko diogu geroari aldaba” goiburua hartuta, Illati euskara elkarteak ekainaren 26an ospatuko du bere eguna. Goizean hasi eta bazkal ondora arte plazan antolatutako ekitaldiek beteko dute elkartearen lehendabiziko jaia. Lau gunetan banatuko dute plaza: umeen txokoa (marrazki eta idazlan lehiaketa antolatu dituzte), graffitia

nola lantzen den ikusteko gunea, Euskara Elkartearen postua (kamisetak jarriko dituzte salgai) eta herriko elkarteetako sukaldarien txokoa. Sukaldariek herri bazkarirako menua prestatuko dute. Bazkarirako txartelak salgai daude herriko tabernetan 8 euroren truke. Bazkal ondoren Ziburuko Unama taldearen musika emanaldia egongo da.



Herri Eskolakoak Gasteizen

Aita Iparragirre herri eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak, irakasleak eta guraso talde bat Gasteizen izan berri da “Nahiko” izeneko proiektuan egindako lanaren berri emateko. Gasteizko Europa Jauregian egindako ekitaldian, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak parte hartu zuten.

Idiazabalgo haurrekin batera, Irungoak eta Basaurikoak ere izan ziren. Hiru ikastetxe hauek hartu dute parte “Nahikoa” izeneko ekimenean. Emakumeen aurkako tratatu txarrei aurre egitea da proiektuaren helburua. Idiazabalgo Herri Eskolan, bukatzera doan ikasturtean hainbat ekimen egin dituzte programa garatzeko. Ikasleek, irakasleek eta gurasoek hartu dute parte ekintzetan. Datorren ikasturtean jarraitzeko asmoa dute.

Sanjoan sua

Gazte Asanbldak antolatuta suaren inguruko festa izango da ekainaren 23an, Sanjoan bezperan. Txalaparta, dantzariak eta txistulariak izango dituzte lagun gau horretako protagonistek: sorginek. Sua plazan egingo dute, eta haren inguruko festa gaueko 11.00etatik aurrea izango da.

Sanjoanetarako festaz gain, Gaztetxean, San Inazio egunera begira ere jarri dira. Azken urteetan, egun horretan Kateko auzoan egiten den jaia galtzen ari dela ikusita, herriko gazteek berreskuratu egin nahi diote. Horretarako, festa batzordea antolatu nahian dabilta. Interesa duenak, ostiraletan, arratsaldeko 7etan Gaztetxean egingo diren bileretara jo besterik ez du.

Julia Leon

Julian Leonek kontzertua eskainiko du ekainaren 18an, ostirala, arratsaldeko 7,30etan Pilarreneako lorategian. XV. eta XVI. mendeetako poesia eta doinuak eskainiko ditu.

Jubilatuen Elkarte

Zuzendaritza taldea berritu du herriko Jubilatuen Elkarteak. Aurrerantzean, Seberiano Ariztimuño izango da elkartearen presidentea. Idazkari lanetan Inazio Arrondo arituko da eta diruzain Juan Arribas. Horiekin batera, ondoko hauek ere badaude Jubilatuen Elkartearen batzordean: Juan Urzelai, Jose Telleria, Ramiro Lasheras, Begoña Barriocanal, Gloria Mendia, Milagros Aizpeolea eta Milagros Goiburua.

Xabier Urteaga



Herri Kiroletako finala

Idiazabalgo herri-kirol taldea Tolosan izango da ekainaren 19an, larunbata, euskal jolas, joko eta kirolen topaketako finalean. Goizeko 11etan hasita, idiazabaldarrek Euskal Herriko beste 23 talderekin neurtuko dituzte indarrak Tolosako zezen plazan. Hiru bat orduko saioa izango da. Tolosako finalerako txartela, Anoetan, ekainaren 6an jokaturako kanporaketan lortu zuten herriarrek. Gipuzkoako 12 talderen arteko lehiari, garaile izan ziren 783 puntu eskuratuta.

Uda kanpaina

Ekainaren 28tik, uztailaren 23ra egingo da aurtengo uda kanpaina. **Haurrak:** 5, 12 urte bitarteko haurrentzat antolatutako jolasak eta kirola. 15 egunerako (12 euro) edo hilabete osorako (24 euro) eman liteke izena Udaletxean ekainaren 22a baino lehen. **Helduak:** Bizkarreko masajerako hastapena. Asteartetan eta ostegunetan arratsaldeko 7etatik 8,30etara Kiroldagian. 25 euro ordaindu behar dira ikastaroa egiteko, izen ematea udaletxean hilaren 22ra arte.

Tenis txapelketa

Herriko tenis txapelketaren 8. edizioa uztailaren 1ean hasiko da. 14 urtetik gorako herritarrek hartu dezakete parte.



Urkiolako txangoa

Ekainaren 6a zen hitzartutako eguna eta hitz eman bezala 25 mendizale inguru Aramako plazan geunden autobusaren zain. Aurretiaz herriko 4 gazte beraien bizikletak hartu eta abiatuak ziren Urkiolaruntz.

Autobusean sartu eta hitz eta pitz, batekin eta bestearekin, paisaia ederrei so, uste baino lehenago ginen Urkiolako mendatean gora. Askok kristaletatik bista kendu ezinik genbiltzan gure txirrindulariak noiz ikusiko, itzela izan zen gure ezustekoa txirrindulariak fresko-fresko gure zain Urkiolako baselizaren aurrean ikusi genituenean. Benetan sasoiko daudela erakutsi ziguten gazte hauek.

Behin Urkiolara iritsitakotan, hankak luzatu eta botak jantzi ondoren, bidez bide Anbotoko maldetan gora abiatu ginen. Eguraldi ederra egin zigun, aldanen gora as-

kok sargori sumatzen bagenuen ere, eta pixkanaka-pixkanaka, pausoz pauso, mendi tontorra gure begi bistan genuen, handi eta eder zegoen Anbotoko dama.

Haurrak eta forma onenean ez geundenak Pol-Pol-eko ingurumariatzen geratu ginen bertako iturriko ur freskoa edanez eta sasoikoenak berriz maldan gora ziztu bizian galdu ziren.

Bazkalordua iritsi zenean Urkiolako zelaietara inguratu eta sagardo fresko tragoska bat edan ondoren bazkaria prestatzeari ekin genion. Be-



netan ederra atera zitzaigula oraingo honetan paella, zorrionak sukaldariei.

Bazkaloste eta siesta ederren ondoren, Urkiola inguruan paseotxo bat eman genuen eta nola ez, batek baino gehiagok harriaren inguruan derrigorrezko bueltak emate-

ko aprobetxatu zuen (santuak zortea eman diezaiela). Arratsalde aurrera zihoan eta Aramara bueltatzeko garaia iritsi zen, penaz bada ere itzuli egin behar.

Txangoan izan ginenok egun ederra pasa genuen Urkiola aldean, honegaitik dagoeneko hurrengo ibilaldia prestatzen joateko asmotan gabiltza, ideiak behintzat ez zaizkigu falta. Ziur berandu baino lehen Euskal Herriko beste paraje zoragarriren batean zehar abiatzen garela. Bitartean animo eta ez utzi botei hautsa hartzen.

San Joan sua

Urteko gaurik luzeena aprobetxatuz, San Joan bezperan suaren inguruan bildu eta gaugiro ederraz gozatzeko aukera paregabea izango dugu. 20:30ean piztuko da sua eta suaren garren beroari aurre egiteko eztarria sagardoaz freskatu eta sabela txorixo eta sardinez berdindu ahal izango da. Gau giro ederrean gaua pasa nahi baduzue, ez egin dudarik, aramatar guztiak gonbidatuta zaudete.



San Joan gaua

Ekainaren 23an, San Joan suaren inguruan festa izango da. 19:00etan hasita, herriko txarangarekin kalejira, 19:30ean, barrika bat ardo irekiko da eta 21:00etan herri afaria izango da plazan. 22:30ean, Alamartxo festa hasiko da, dantzari eta txalapartariekin.

Konekta Zaitetz: ordutegiak

Ekainak 18, 25 eta uztailak 2, goizeko 11etatik ordu batera.

Uztailak 9, 16, 23 eta 30, 12:15etik 16:00etara.

Eskola Kiroleko festa

Ikasturte honetako Eskola Kirola programari amaiera emateko, festa izango da ekainaren 26an, goizeko 10etan hasita, Resti pilotalekuan. Guraso eta seme-alaben arteko areto futboleko, saski baloiko eta pilotako partidua jokatu-ko dira. Ondoren hamaiketakoa izango da.

Zahar egoitzako ibilaldia

Ekainaren 29an, Larraitza egingo dute ibilaldia Zahar egoitzatik.

Pirinioetara irteera

Gailurrerantz Mendi Taldeak antolatuta, asteburuan, ekainaren 19an eta 20an, Pirinioetara egingo du irteera. Lintza-Hiru Erregeen Mahaia-Leskun ibilaldia egingo dute.

Ipuin saioa

Ekainaren 29an, goizeko 11,30etan, ipuin saioa izango da Kultur etxean.

Pintura eta eskulan erakusketak

Patxi Epelde eta Iñaxi Urreagaren ardurapean burutu diren pintura eta hari lanen ikastaroetan egindako lanak ikusgai izango dira, Kultur etxean, ekainaren 21etik 25era, astelehenetik ostirale- ra, 17:00etatik 19:30era.

AEKren euskarazko txiste eta pasadizo idatzien XIII. lehiaketako irabazleak

Orkli kooperatibako goi urratseko ikasleak, Orkli-ko alfabetatze taldeko ikasleak, eta Ordiziako Goiztiri AEK-ko Urdaneta ikastetxeko 7. urratseko ikasleak izan dira Goiztiri AEK euskaltegiak antolatu eta Ordiziako Udalak babestutako XIII. txiste eta pasadizo idatzien lehiaketako irabazleak. Bina afariko saria jaso dute, Zeraingo Ostatuan, Lazkaomendiko Intxurrenen eta Itsasoko Ostatuan. Jarrain dituzue txiste irabazleak.

Brasilera

Emakume bat, bere lantegiak bidalita, Brasilera konbentzio batera joan zen bi aste pasatzera. Senargaiak aireportura eramane zuen eta esan zion:

- Bidaia on maitea!
- Eskerrik asko maitea. Zer nahi duzu handik ekartzea.
- Je, je, "mulata" bat ekarriko al didazu? Erantzun zion senargaiak pozik.

Emakumea isilik geratu zen eta joan zen. Bi aste pasatu eta senargaia emakumearen bila joan zen eta:

- Zer moduz bidaia maitea?
- Oso ondo. Eskerrik asko.
- Eta senargaiak "koñarekin":
- Eta zer gertatzen da eskatu nitzunarekin?
- Zer?
- Je, je "mulata" hori.
- Ah hori! Ba ahal nuena egin nuen. Orain hilabete batzuk itxaron behar ditugu neska ala mutila den ikusteko.

(ORKLI-ko goi urratseko ikasleak)

Bekarioa

Azkenik heldu zen askok desioz eta pozez espero genuen eguna. Halako batean gizaki guztiok bezala Aznar hil zen. Nola ez, hil ondoren beste lekuri ezean buruz joan zen infernura. Baina han ere non kokatu arazoak zituen deabruak, ez baitzuen nahi oilategia aztoratzerik. Hala, hiru aukera ematea erabaki zuen. Hori bai, aukeratutakoa, betirako izango zenaren kondizioarekin. Aznarrek baietz esan zuen hiru aukeren artean bat gustatuko zitzaiolakoan.

Biak joan eta lehenengo atea ireki zuten. Bertan, sekulako igerileku olinpikoa zegoen eta bertan Felipe Gonzalez, igerian geratu gabe betirako!

Hau ikusi ondoren Aznarrek zera pentsatu zuen:

- Nik Oropesan igeri gustura egiten nuen. Baina betirako igerian ibiltzea... ez! Nik nahiago dut beste aukera bat. Bigarregi atea irekitzera jo-

an ziren orduan. Han, Jordi Puyol zegoen, Everest mendia pikatzen. Haren atzean berriz bi edo hiru Everest gehiago. Aznarrek pentsatu zuen:

- Ni bizi guztian kolpe zorri-rik jo gabe egon ondoren, orain lanean hasi? Ez!

Hirugarregi atea ireki zuten eta han azaltzen zaigu Xabier Arzallus bulego batean bere txapel, puru, kopa eta guzti. Tikitixa entzuten zuen bitartean prakak jaitsita, Lewinski anderea bertan jo eta su ari zen!

Orduan Aznarrek zera pentsatu zuen:

- A ze kabroia! Hau hil ondoren ere ondo bizi duk! Tikitixa ez da nire gustukoa baina, aldatuko diot doinu...

Hala, deabruari aukera hori nahi zuela esan zion. Deabruak ondo pentsatzeko esan ondoren, horrela agindu zuen:

-Lewinski! Utz ezazu zure lana, erreleboa heldu zaizu eta!

(ORKLI-ko alfabetatze taldeko ikasleak)

Gaixotasunentzat erremedioa


Bazen inguruko herri batean 85 urte betetzera zihoan amona bat. Herrian oso estimatua

eta maitatua zen organo eta piano irakasle bakarra baitzen bera. Egun batean herriko apaizaren telefono deia jaso zuen honen bisita izango zuela arratsalde horretan bertan.

Horrela apaiza amonatzaren etxera joan zen arratsaldean. Sartu bezain pronto zera jabetu zen apaiza, organoaren gainaldean kristalezko lorontzi bat bazegoela. Baina uretan kondoi bat zegoen. Apaiza ezin sinisturik eta nolabait bere harridura ezkutatu ezinik zebilen bitartean amonatzoa hizketan ari zitzaion. Bizitako 85 urte horietan gertatutako guztia kontatu eta jada kafetxo pare bat hartu ondoren, apaizak ikusitakoa ezin sinisturik jarraitzen zuen oraindik. Halako batean, jakinminak erabat itsuturik lorontziari begira jarritz zera galdetu zion amonatzeari:

- Aizu, barkatu baina azalduko al zenidake zer den hori?
- Bai, arazorik gabe. Zoragarria da. Iaz edo herrian zehar paseatzen ari nintzela lurrean sobretxo bat ikusi nuen. Honela jartzen zuen letra txikitxian: "Organoaren gainean jarri, heze mantendu eta edozein gaixotasunetik aske izango zara". Eta harrezkero, aizua, ezta gripe bat ere!

(Ordiziako Goiztiri AEK-ko Urdaneta 7. urratseko ikasleak)



SASIETA MANKOMUNITATEA

www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55

Kirola bi lerrotan



Villafranca futbol taldeko beteranoak saribanaketa ekitaldian izan ziren, Alejandra Iturrioz Ordiziako alkatearekin eta Agurtzane Antoñana zinegotziarekin batera.

Ordizia Kirol Elkartearen denboraldi amaierako sari banaketa

2003-2004 denboraldia amaitu den honetan, Ordizia Kirol Elkartek, maila ezberdinetako futbolariak saritu nahi izan zituen. Jarraian duzue sarituen zerrenda:

Preferentea: Goleatzaile nagusia: Ibon Insausti. **Erregularrena:** Gorka Lekuona. **Saiatuena:** Iñaki Iraola.

Lehenengo Erregionala: Goleatzaile nagusia: Alex Mate. **Erregularrena:** Iñigo Zubeldia. **Saiatuena:** Aitor Leturia.

Jubenilak: Goleatzaile nagusia: Jon Usabiaga. **Erregularrena:** Jon Urteaga. **Saiatuena:** Xabier Dorronsoro.

Kadeteak: Goleatzaile nagusia: Igor Otegi. **Erregularrena:** Jon Aizpurua. **Saiatuena:** Xabi Iturrioz.

Infantilak: Goleatzaile nagusia: Iñigo Esnaola. **Erregularrena:** Asier Otegi. **Saiatuena:** Kepa Jauregi.

Alebinak: Goleatzaile nagusia: Gorka Azurmendi. **Erregularrena:** Joanes Gonzalez. **Saiatuena:** Jon Blanco.

Arantxa bodegoia, Autowag, Olano taberna, Zeberio harategia, Errotaundi okindegia, Gontxu, Ilunpe Pub, Mekalan, Miami kafetegia, Mugar elektrizitatea, Oiangu taberna, Ostadar kafetegia, Pias taberna, Pottoka kafetegia, Txola eta Zortziko Bi tabernekin eman zizkieten oroigarriak irabazleei.

Juan Manuel Seco:

Beasain futbol taldeko entrenatzaile berria

Juan Manuel Seco izango da hurrengo denboraldian, Beasain futbol taldeko entrenatzaile berria. Real Unionen eta Hernanin aurrez entrenatzaile moduan ibilia da.

Joseba Belokik bigarren urteko kontratua eten du Boulangererekin

Lazkaoko txirrindulariak La Boulangerie taldearekin bi urterako kontratua sinatua bazuen ere, bigarren urteko kontratua etetea erabaki du Belokik, taldea desagertu egingo baita.

Frantziako Tourra gertu dagoen honetan, Beloki ez dago saioirik onenean. Asma arazoak dituela eta hainbat botika hartzeko zailtasunak jartzen ari zaizkie Frantzian.

Garikoitz Bravo Euskadiko txapelkun kadeteetan

Ekainaren 6an Lazkaon jokatu zen Euskadiko kadete mailako txapelketa irabazi zuen Garikoitz Bravok. Garmendia Tejas y Cubiertas taldeko txirrindularia da Bravo.



Beasain herriarteko txapelketako finalerdietan

Gipuzkoako herriarteko pelota txapelketan finalerdietara iritsi da Beasain, Lazkaoren aurka irabazi ondoren. Azpeitia dute orain arerio. Joaneko partiduan 3-0 galdu zuten. Itzulerako partiduen zain egon behar finalera iristen diren ala ez jakiteko.



"LURRA"

Naturako zerbitzu turistikoak

J. Ramón Agirre "Márron"

Tel. 943 18 02 53

615 781 287

E-mail: lurra@pirineum.net

www.pirineum.net Pirinioak pausoz pauso

Murgil zaitetz inguru paregabe honetan, aditu eta natur maitaleen laguntzaz

Gainez gain, itsasotik itsasorako zeharkaldiak

1. Mediterraneo - Banyuls - Eyné (7 etapa) • 2. Eyné - Tavascan (7 etapa)
3. Tavascan - Pineta (7 etapa) • 4. Pineta - Belagoa (7 etapa)
5. Belagoa - Hondarribi (7 etapa)



ZINEA

BEASAIN:

'El día de mañana'.

Ostirala 18: 22:15.

Larunbata 19: 19:30 - 22:15.

Igandea 20: 19:30 - 22:15.

Astelehena 21: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'El día de mañana'.

Ostirala 18: 22:15.

Larunbata 19: 22:15.

Igandea 20: 16:45 - 19:30 - 22:15.

Astelehena 21: 19:30 - 22:15.

musika

BEASAIN:

Ekainak 23, Koskola txarangarekin dantzaldia, Gernika pasealekuan, San Joan suaren inguruan.

Ekainak 24, Igartzako ikuskizunak: Anthony Reynolds bakarlariaren kontzertua, Igartza jauregian, 21:00etan. Sarrera: 4 euro.

EZKIO-ITSASO:

Ekainak 26, Gari, Iñaki eta Jonekin erromeria, Santa Lutzian, 23:00etan.

MUTILOA:

Ekainak 29, Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariak, iluntzean.

OLABERRIA:

Ekainak 19, Brigada Criminal, Dogma de Fe eta Kudai, 23:30ean.

Ekainak 20, Black Jiko eta Jauko Barik taldeen musika jaialdia, 23:00etan.

Ekainak 23, Erramun Martikorenaren kantaldia, San Joan suaren ondoren.

Ekainak 24, Zeba abesbatzaren emanaldia, mezaren amaieran.

SEGURA:

Ekainak 18, Gaubela taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 19, Gaubela taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 23, Zirika taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 24, Herriko haurren eta helduen abesbatzaren emanaldia, Arabarren plazan, 12:15ean.

Ekainak 24, Disko festa, 20:00etan eta 23:30ean.

Ekainak 25, Kalejira Mac Jera's Band taldearekin 23:00etan. Ondoren, kontzertua, plazan.

Ekainak 26, Irailerako 6 taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 27, Tobera musiak eskolako ikasleen eta Donostiako Santa Zezilia abesbatzaren emanaldia, 12:00etan.

Ekainak 27, Egan taldearekin dantzaldia, 20:30ean eta 23:30ean.

pailazoak

SEGURA:

Ekainak 27, Poxpolo eta Mokolo pailazoak, 19:30ean.

bertsoak

OLABERRIA:

Ekainak 24, Xabier Zeberio eta Mañukorta bertsolariak, 13:00etan.

SEGURA:

Ekainak 24, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, Udaletxeko balkoitik, 12:00etan.



Bainuko osagaiak
Berogintza
Iturgintza
Gasa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta
tratamendua

- Test-ak, Frogak
- Tailerrak

Zunzunegi
Uinetakoak

Hirigoien, 8A
943 087 913
LAZKAO



BIDAIAK

OVER Taldea

Abuztuan Peru:
Inken inperioa eta
Amazonia
20 egun 1.995 euro

Kale Nagusia 42, behe
Tel./Faxe: 943 80 40 15
BEASAIN
urrakibidai@telefonica.net

dantza

BEASAIN:

Ekainak 20, Gala Balet Eskolako ikasleen ikasturte amaierako saioa: Hans Christian Andersen idazlearen 'Berunezko gudari txikia' ipuinaren dantza-modalketa, Usurbe Antzokian, 12:00etan.

Ekainak 23, Ostadar dantza-taldearen eskutik 'San Joanen Zortzikoa eta Akelare' dantza saioa, Gernika pasealekuan, 22:15ean.

SEGURA:

Ekainak 20, Euskal Herriko Dantza txapelketa. Finala. 18:00etan, Baratzte pilotalekuan.

antzerkia

BEASAIN:

Ekainak 25, Errail antzerki taldek Anton Txekhoven 'Ezkontzeko eskea' eta 'Urteurrena' lanak antzeztuko ditu, Usurbe antzokian, 20:15ean.

erakusketak

BEASAIN:

Azarora arte, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Igartza jauregian.

Ekainaren 20ra arte, Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteko ikasleen lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketaretoan.

Ekainaren 26an hasita, Bear Pintura Zaletuen Elkarteko ikasleen lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketaretoan.

Ekainaren 30era arte, Kontxiren 'Legazpi eta Burdina' pintura erakusketa, Salbatore hotelean.

ORDIZIA:

Ekainaren 18ra arte, Iñaki Olazabalen eskultura erakusketa, Barrenan.

VII. Literatur sorkuntzako beka

Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin, VII. Igartza Literatur Sorkuntzako beka kaleratu duela badira hilabete batzu. Jakin ezazue, lanak aurkezteko epea uztailearen 1an amaituko dela.

Idazle berrientzako beka da, 35 urtetik beherakoentzat. Bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea da bigarren baldintza. Deialdira, narratibako lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasunean inon argitaratu gabeak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

6.000 euroko diru-laguntza izango du. Julen Gabiriak, Jassone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatuko dute epaimahaia.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Ekainak 19-20: Rekalde

(Plaza Nagusia, - Ordizia). 943 882628.

Ekainak 26-27: De la Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

mendi irteera

BEASAIN:

Ekainak 20, Aizkorri Mendizal Elkartea: Gorbeia.

Ekainak 27, Aizkorri Mendizal Elkartea: Mendia eta itsasoa.

Ekainak 12, Erretiratu eta adineko pertsonentzako mendi irteera: Ibilaldi neurtua.

ORDIZIA:

Ekainak 20, Ordiziako Mendizaleak: Aralarko San Migel.

Ekainak 26, Ordiziako Mendizaleak: Ordizia-Orio.

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

UDA 2004

Datorren ikasturteko matrikula zabalik!

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Datorren ikasturtea prestatzen hasi nahi duzu?
Kilin-kolon utzitako gairen bat sendotu?
Taldea txikiak eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dizkizugu

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Gai eta maila guztiak
- ✓ Unibertsitate maila (Errekuperazioak)
- ✓ Eskolako lanak
- ✓ Ingelera gaztetxoentzat

TAILERRAK (6-12)

- ✓ Arrazonamendua
- ✓ Abstrazioa
- ✓ Autonomia garatu
- ✓ Irakurmena
- ✓ Idazmena

TAILERRAK (12-18)

- ✓ Irakurritakoa ulertu
- ✓ Ikas-teknikak
- ✓ Testu-komentaketak
- ✓ Idatzizko espresioa
- ✓ Ortografia

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Lazkaon. 59 m². 2 logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugela eta ganbara. 943087914. Iluntzetan deitu.

➡ Torreviejan, apartamentua salgai. Erdigunean. Mobleztatua. Terraza handia. Akabatu ona. 948075351.

➡ Etxebizitza salgai Ordizian, Altamira auzoan. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta balkoi handia. Prezio onean. 943884986. 21:00etatik aurrera deitu.

➡ Ordizian pisua salgai. 117 m². 4 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Garajea eta tras-talekua. Igogailua eta berogailua. 629494742.

errentan eman

➡ Uztailan, Jakan, etxebizitza alokatzen da. Igeriluarekin. 943888485. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Beasainen, erdigunean, duplexa alokatzen da. Mobleztatua. 615787097.

➡ Luz Ardidenen apartamentua alokatzen da. Sei ohe eta igerilekua. 943881666. Denda orduetan deitu.

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

errentan hartu

➡ Bikote bat, alokairuzko pisu bila dabil Goierri aldean. 677541055.

➡ Bizitzeko baserri bat errentan hartu nahi da Goierriin. 659858564.

➡ Bikote bat, Beasainen edo Ordizian, alokatzeko pisu bila dabil. 607658507.

elkarbanatzeko

➡ Bilbon, ikasle pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. 680171588.

➡ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

Lokalak

salgai

➡ Usurbilen, Urbil merkataritza-zentroaren ondoan 420 m²ko lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokitua, lokal argia, ordenagailu-sarea instalatua, ordenagailu askorentzako hargunea. 943363040.

errentan eman

➡ Beasainen 133 m²ko lokal komertziala alokatzen da. Erdigunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Bestelakoak

salgai

➡ Abdominalak egiteko bi makina salgai. Bakoitzak 30 euro. 615768205.

➡ Egurrezko 7 ate saltzen dira. Bi kristalduinak. 82 cm-ko zabalera. Estreinatuta gabeak. Prezio oso interesgarria. 676929453.

➡ Solariuma salgai. Gorputz osokoa eta alde batekoa. Gutxi erabilia. 250 euro. 13:30etik 14:30era eta 20:00etatik 21:00etara deitu. 943187578.

➡ Biolina eta gitarra salgai. 665756560.

➡ Karro-denda salgai. 4 laguntzako, abantze eta guzti. 16 metro karradenera. Bi logela eta erdian salarekin. Kofre jator bat ere bai. 605750914 - arrietabeo@euskalnet.net

opari

➡ 12 eta 10 urteko haurren txirinduak nahiko genituzke. 696218195.

Animaliak

salgai

➡ Pastor Aleman arrazako txakurkumeak salgai. 626523064.

galdutakoak

➡ Beasainen artzain txakurra galdu da. Gris iluna. Arra. Katedun koilara dauka. 943885102.



TAPIA

TELEKOMUNIKAZIOAK eta INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta industrirako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak

Ibabe Industrialdea, 21
943 88 95 94
LAZKAO

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
943 88 77 58 943 88 72 79 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

iBAi-ONDO AROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multi**sac**

943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Ibilgailuak

salgai

- ➔ Volkswagen Passat 1.9 TDi 115Cv Trendline 2000n eresia, 105.000 Km, extra asko (4x E.E., 4xAirbag, C.C., Aluminioa 16" 205, Climatronic, ABS, CD 12x, e.a.) Beti gara-jean, oso ondo zainduta. 652701007.
- ➔ Garraio txartel nazionala eta kamioneta salgai, 3.500 kilo baino gutxiagoko kargarekin. Bolketea ere badu. 657792141 - 651701690.
- ➔ Renault 19 1900 diesela salgai. SS-AM. Egoera onean. 1.700 euro. 649704743.
- ➔ Citroen Xantia TD salgai. 98. urtekoa. Egoera onean. 620585468. 17:00etatik aurrera deitu.
- ➔ Volkswagen Golf GTi salgai. Bigarren modeloa (serie 2). 1.500 euro. 625702862.

➔ Golf GTi salgai. Bigarren modeloa (serie 2). 1.500 euro. 625702862.

➔ Citroen ZX turbo diesela salgai. 50.000 km. Egoera oso onean. NA-AN. 2.500 euro. 635727536.

➔ Rover 420 GSI, 2.OL, 135 Cv, 16 v. salgai. Abs, airbag, aleaziozko llantak, aire ego- kitua. Egoera onean. 4.200 euro. 666134369.

Lana

eskaerak

- ➔ Pertsona euskaldu- na behar da tabernan lan egiteko. Lanerako gogoia duena. 943886577 - 943160205.
- ➔ Ordizian, neska euskalduna behar da as- teburuetan tabernan lan egiteko. 605772623.
- ➔ Lazkaoko taberna baterako langilea behar da. Beharrezkoa euska- raz jakitea. 943886852.
- ➔ Zerbitzaria behar da Beasainen. 629160500 - 667734759.
- ➔ Esperientziadun zerbitzariak behar dira, Goierriin, uda denboral- dirako. 655743368.
- ➔ Lazkaon, asteburue- tarako tabernarako zer- bitzaria behar da. 943882029.
- ➔ Ordiziako taberna baterako langileak be- har dira, sukaldarako eta barrarako. 629114977.

➔ Mutil edo neska bat behar da tabernarako. 943160152. 14:30etik 15:30era deitu.

➔ Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperien- tziaduna bada hobe. 943880044.

eskaintzak

- ➔ Uztailean haurrak nahiz adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen 19 urteko neska naiz. Ordizian edo inguruan. 943086999. Eguerdie- tan edo gauean deitu. Naiara.
- ➔ Emakume bat prest dago adineko pertsonak zaintzeko, garbiketara- ko edo gidari bezala lan egiteko. Orduka edo egun osoz. 943085508 - 678781985.
- ➔ 19 urteko mutila prest dago edozein lan egiteko. 639984216.
- ➔ Neska euskalduna prest dago haurrak edo helduak zaindu, etxeko

lanak egin edo zerbitza- ri lana egiteko. Ordizian edo Beasain aldean. 943801392. Aintza.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da tabernan zerbitzari moduan ari- tzeko. 943801392. Amalur.

➔ Magisteritzako ikasle gazte bat prest dago Goierriin, udan lan egiteko. Haurrak zain- du, zerbitzari, taberna- ri... 943084125 - 665705671.

➔ 21 urteko neska, in- formatikako ezagupene- kin eskaintzen da hau- rrei klaseak emateko edota zaintzeko. Garbi- ketarako ere bai. 679556586.

MUGAR

**ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENAK**
aberiak, atezain automatikoak,
TB antenak, pabiloiak,
dendak, proiektuak,
berrikuntzak orokorrean...

K21
KALITATEA

E-mail: mugar@mugar.net
web-gunea: www.mugar.net

Euskal Pilota, 4 San Inazio, 8
☎ : 943 160 240 ☎ : 943 888 907
ORDIZIA BEASAIN
Faxa: 943 888 688

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY
FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA



I. poteo elegantea, 1987an Seguran

Antonkalene aurrean ateratako argazkia da. 1987ko San Joan jaietan, lehenengo poteo elegantea egin zenekoa.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Gurutx Goikoetxea, Jaione Intxausti, Ana Ugalde, Gurutze Telleria, Ines Ormazabal, Fernando Santiago, Jaione Etxeberria, Aitor Leturia, Bittor Elorza, Xabier Alustiza, Joxe Migel Aldanondo, Eduardo Aldanondo, Joxeba Telleria, Mikel Izagirre, Pello Ormazabal, Inmakulada Segura, Gurutz Aldanondo, Mari Jose Arrondo, Yolanda Gabilondo eta Joxantonio Aldasoro.

Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Irune Etxeberria, Gurutze Etxeberria, Lierni Arrondo, Atxeli Ugalde, Arantxa Arrondo, Jaione Telleria, Ismael Rodriguez, Luisito Garmendia, Jokin Etxeberria, Aitor Gabilondo, Aitor Arrondo, Antton Aldanondo, Iñaki Ormazabal, Joxe Angel Jauregi eta Markel Telleria.



Jaietan ere, euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei eta ondo pasa aurtengo jaietan.

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**



ONDARRE
NEBIZALTURISMOA
SEGURA ☎ 943 801 664 ☎


ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA



amatriain
f r u t a k

Tel.: 943 80 11 77
Zurbano kalea 22 **SEGURA**


Tel.: 943 16 01 90
Jose Lasa, 9 **LAZKAO**



Teknologia, profesionaltasuna eta aroa,
zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo
batean, zerbitzurik hurbilena eskainiz,
dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.


Gure zentrua, behar guztiak asetzeko
erabat horniturik dago; elbarrituentzat
guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi
eta zure ongizatea lortzeko behar diren
guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi**
aurreeratuenak zure esku jarritz, gure
lan talde espezializatuak norbanako
tratamendu egokienaz landuko ditu
zure beharrik, bai **implantologi**, **estetika**
edota zirugi mailan.

Erabateko hartz klinika integratua.



KOL. Don 449 RPS-144/03
TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

EUSKARA IKASTAROAK



udan freshura beharko duzu... euskara beti!
en verano necesitarás aire fresco... ¡el euskera lo necesitarás siempre!

- ✖ Euskalduntze maila guztiak eta alfabetatzea
- ✖ Hizkuntza eskakizunak: Osakidetza, administrazioa,...
- ✖ EGA
- ✖ Internet bidezko ikastaroak
- ✖ Mintzalaguna
- ✖ Etorkinentzako harrera-ikastaroa

Udako ikastaroen matrikula epea: ekainaren 25a arte



ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKUNDA

2 0 0 4 k o u d a



www.antzizar.net

tel. 943 887900

